

**Euskarazko elkarkari iragangaitzak:**

**lexikoak ala sintaktikoak?**

**(ez baita gauza bera *ikusi gara* eta *ezkondu gara*)**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Bilbao Hernandez, Kristina

GRADUA: Euskal Ikasketetako Gradua

SAILA: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila

ZUZENDARIA: Fernández Fernández, Beatriz

2021-2022 ikasturtea — Ekaineko deialdia

## Laburpena

Lan honetan euskararen egitura elkarkari iragangaitzak aztertuko ditut. Euskaraz, egitura elkarkari kanonikoak iragankorrak dira eta *elkar* anafora elkarkariaren bidez eratzen dira, *Mirenek eta Anek elkar ikusi dute* esaterako. Alabaina, euren aldean badaude egitura elkarkari iragangaitzak, anafora gabe sortzen direnak, *Miren eta Ane ikusi dira* bezalakoak.

Dena den, lan honetan erakutsiko dudanez, euskarazko elkarkari iragangaitz guztiak ez dira berdinak. Silonik (2012), hainbat hizkuntzatako elkarkari iragangaitzak aztertu ondoren, batzuk lexikoan sortzen direla proposatu du eta beste batzuk, aldiz, sintaxian. Hain zuzen ere, munduko hizkuntzetako elkarkari iragangaitzetan ikus daitekeen aldakortasuna *Hiztegiaren edo Sintaxiaren parametroa* (ing. *Lex(icon)-Syn(tax) parameter*) deritzon parametro baten bidez azaltzen du.

Silonik (2012) honako ezaugarri hauek dakartza *elkarkari lexikoak* eta *elkarkari sintaktikoak* bereizteko: i) elkarkari lexikoak berez elkarkariak diren aditzekin sortzen dira, sintaktikoak ez bezala; ii) elkarkaritze sintaktikoa prozesu emankorra da; iii) elkarkari sintaktikoek datiboa agertu ez arren akusatiboa agertzea onartzen dute; iv) *Ezohiko Kasu Markapena* (ing. *Exceptional Case Marking*) duten aditzekin posible dira elkarkari sintaktikoak, lexikoak ez bezala; v) elkarkari sintaktikoak osatzen dituzten aditzek kideko iragankor bat daukate, lexikoek ez ezinbestean; vi) elkarkari lexikoek *lokuzioak* (ing. *idioms*) direlakoak sortu ditzakete eta *aldaketa semantikoa* (ing. *semantic drift*) jasan dezakete, sintaktikoek ostera ez; vii) aditz-izenak buru dituzten perpausak ez dira elkarkari sintaktikoekin bateragarri, elkarkari lexikoekin baino, eta viii) elkarkari lexikoek soilik sor ditzakete *elkarkari etenak* (ing. *discontinuous reciprocals*) (Dimitriadis 2004).

Ezaugarri hauek kontuan izanik, nire hipotesia da euskarazko elkarkari iragangaitz asko sintaktikoak direla, aditz gutxi batzuekin elkarkari lexikoak ere badauden arren. Hain zuzen ere, Silonik (2012) ikusi du elkarkari sintaktikoak dituzten hizkuntzetan elkarkari lexiko batzuk ere egon daitezkeela eta ez, aldiz, alderantziz.

Horrez gain, elkarkari iragangaitzek galdera teoriko interesgarri bat erakusten dute. Perpausak agerian argumentu bakarra du egitura hauetan, baina bi errol tematiko esleitu behar dira, egilea eta gaia, alegia. Silonik (2012) arazo teoriko honi azalpen bi eman dizkio, elkarkariak sortzen diren gramatikaren atalaren arabera, eta nik euskarara ekarri ditut. Batetik, elkarkari lexikoetan *paketatzea* (ing. *bundling*) (Reinhart eta Siloni 2005; Siloni 2012) deritzona proposatu du. Bestetik, elkarkari sintaktikoetan errol tematikoak *parasitikoki* (ing. *parasitic assignment*), (Siloni 2012) esleitzen direla defendatu du.

## AURKIBIDEA

1. Atarikoa.....	4
2. Euskarazko egitura elkarkariak.....	6
2.1. Elkarkari iragankorrak.....	6
2.2. Elkarkari iragangaitzak.....	9
2.2.1. Elkarkari iragangaitzen berezitasun morfosintaktikoak.....	10
3. Elkarkari lexikoak vs elkarkari sintaktikoak.....	16
3.1. Aditzak.....	17
3.1.1. Simetrikotasuna.....	17
3.1.2. Emankortasuna.....	19
3.1.3. Sarrera izoztuak, aldaketa semantikoa eta lokuzioak.....	19
3.2. Morfosintaxia.....	22
3.2.1. Kasua.....	22
3.2.2. Ezohiko Kasu Markapena.....	23
3.2.3. Aditz-izenak.....	25
3.2.4. Elkarkari etenak.....	26
3.3. Tarteko ondorioak.....	33
4. Elkarkaritzea.....	34
4.1. Elkarkaritzea lexikoan: paketatzea.....	34
4.2. Elkarkaritzea syntaxian: esleipen parasitikoa.....	36
5. Ondorioak.....	37
Aipamenak.....	38
Adibideetako aipamenak.....	41

## 1. Atarikoa

Euskarazko egitura elkarkariak bi motatan bereizi izan dira literaturan: batetik, elkarkari iragankorrak; bestetik, elkarkari iragangaitzak. Lehenengoak osagarri gunean dagoen *elkar* anafora elkarkariaren bidez sortzen dira, adibidez *Mirenek eta Anek elkar ikusi dute* perpausean. Bigarrenak, berriz, egitura iragangaitzak dira, hots, argumentu bakarrekoak eta anaforarik gabeak, *Miren eta Ane ikusi dira* perpausean bezalaxe.

Lan honetan, egitura elkarkari iragangaitzak izango ditut aztergai. *Miren eta Ane ikusi dira* bezalako elkarkari iragangaitzak, egitura *iragangaiztuak* (ing. *detransitivized*) dira. Izan ere, anaforadun elkarkari iragankorarekin konparatuz gero, *ikusi* aditz iragankor beraren gainean eraikita daude bi egiturak. Hala ere, predikatua iragankorra izan arren, egitura morfosintaktiko iragangaitza erakusten du *Miren eta Ane ikusi dira* adibideak: argumentu bakarra du agerian, absolutibo kasuaz markatua eta *izan* aditz laguntzaile iragangaitzarekin absolutibo komunztadura egiten duena. Horregatik, egitura iragangaitz bihurtu dela esan daiteke, hots, iragangaiztu dela.<sup>1</sup>

Elkarkari iragangaitzek arazo teoriko bat dakarte, Ortiz de Urbinak (1986: 248–253) arakatu zuena eta lan honetan aztertuko dudana. Honi dagokionez, egiturok argumentu bakarra izanda ere, bi errol tematiko esleitu behar ditu *ikusi* aditzak, predikatua iragankorra baita, alegia, esperimendatzailea eta gaia errol tematikoak ezarri behar dituena. Argumentu bakarrak bi errol tematiko hartzeak *Theta Irizpidearen* (Chomsky 1981) urraketa eragiten du. Hau azaltzeko, Silonik (2012) bi proposamen egiten ditu. Batetik, lexikoan sortzen diren elkarkarietarako *paketatzea* (ing. *bundling*) deritzon prozesua proposatzen du, Reinhart eta Silonik (2005: 400) egitura bihurkarietarako proposatutako bera.<sup>2</sup> Bestetik, sintaxian sortzen diren elkarkariak azaltzeko, errolen *esleipen parasitikoa* (ing. *parasitic assignment*) proposatzen du Silonik (2012: 285).

---

<sup>1</sup> Antzeko ezaugarriak erakusten dituzte morfologikoki egitura iragangaiztuak diren inbertsonalek ere (ikus Ortiz de Urbina 2003; Fernández eta Berro 2021; eta berriki Berro, Odria eta Fernández 2022).

<sup>2</sup> Lan honetan aztertu ez ditudan arren, oso antzeko ezaugarri morfosintaktikoak dituzte bihurkariak eta elkarkariak (Bilbao 2021), bai euskaraz bai munduko beste hizkuntza batzuetan. Hizkuntza erromantzeetan, esaterako, SE klitiko berarekin sortzen dira bihurkari eta elkarkariak, baita inbertsonalak, erdikoak etab. ere (Zribi-Hertz 1982, 2008). Euskaraz, egitura bihurkarietan ere bi motatako egiturak daude: batetik, iragankorrak, *bere burua* anafora bihurkariarekin sortuak, *Mirenek ispiluan bere burua ikusi du* bezalakoak; bestetik, iragangaitzak, anaforarik gabeak, *Miren ispiluan ikusi da* adibidez. Hain zuzen ere, bihurkari eta elkarkari iragangaitzak gainjarri egiten dira aditz batzuekin, subjektua plurala baldin bada: *Miren eta Ane ikusi dira* perpausa bihurkaria izan daiteke, bakoitzak bere burua ispiluan ikusi baldin badu; elkarkaria, berriz, elkar ikusi badute. Bihurkariaren ikuspuntu tipologiko eta diakronikorako, ikus Evseeva eta Salaberri (2018) eta Salaberri (2020 aipamenekin).

Bestalde, orain arte euskal gramatikan ez da bereizketarik egin izan elkarkari iragangaitzen artean (Euskaltzaindia 1985; Hualde & Ortiz de Urbina 2003). Silonik (2012), berriz, hainbat hizkuntzatako elkarkariak aztertu ondoren eta Reinhart eta Silonik (2005) bihurkarietarako proposatutakoaren ildotik ondorioztatu du hizkuntza batzuek lexikoan eta beste batzuek syntaxian sortzen dituztela elkarkari iragangaitzak. Elkarkari lexikoak dituzten hizkuntzak dira, besteak beste, hebraiera, hungariera eta errusiera. Elkarkari sintaktikoak, berriz, hizkuntza erromantzeetan (gaztelania, frantsesa, italiara...) eta hizkuntza eslaviar batzuetan (txekiera, bulgariera eta serbo-kroaziera adibidez) aurki daitezke (Siloni 2012: 270).

Lan honetan, elkarkari iragangaitzen azterketa xehea egingo dut. Batetik, aipatu berri dudan arazoa arakatuko dut, hau da, Theta Irizpidearen urraketari dagokiona. Bestetik, euskarazko elkarkari iragangaitzak gramatikaren zein ataletan sortzen diren aztertuko dut, Reinhart eta Silonik (2005: 391) bihurkarietarako eta Silonik (2012) elkarkarietarako proposatu duten *Hiztegiaren edo Sintaxiaren parametroaren* (ing. *Lex(icon)-Syn(tax) parameter*) arabera euskara nolako hizkuntza den jakin asmoz.<sup>3</sup> Auzi honi dagokionez lan honetan aurkeztuko dudan hipotesia hau da: euskaraz bi motatako elkarkari iragangaitzak aurki ditzakegula, lexikoak eta sintaktikoak, aditz eta jokabide morfosintaktiko desberdina dutenak.

Lan honek ondoko egitura hau izango du. Lehenengo, elkarkari kanonikoak (§2.1.) iragangaitzekin (§2.2.) konparatuko ditut. Horrekin batera, elkarkari iragangaitzek erakusten dituzten zenbait bereizgarri morfosintaktiko ere arakatuko ditut (§2.2.1.). Ondoren, euskarazko elkarkari iragangaitzetan agertzen diren aditzen simetrikotasuna (§3.1.1.) eta emankortasuna (§3.1.2.) aztertuko dut, baita *sarrera izoztuei* (ing. *frozen input*), *aldaketa semantikoari* (ing. *semantic drift*) eta *lokuzioei* (ing. *idioms*) (Nunberg, Sag eta Wasow 1994; euskararako ikus Huarte 2022) begira duten jokabidea ere (§3.1.3.). Jarraitzeko, elkarkari iragangaitzen ezaugarri morfosintaktikoak arakatuko ditut (§3.2.): zehazki, ageri daitezkeen kasuei (§3.2.1.), *Ezohiko Kasu Markapenari* (ing. *Exceptional*

---

<sup>3</sup> Ikerketa galdera hau Artiagoitiak (2018: 334) aipatzen du: “zehaztu gabe geratzen da ea iragangaizte estrategia lexikoa edo sintaktikoa den” (itzulpena nirea da). Bere ustez, euskarazko iragangaizte mekanismoa alderdi batzuei begira lexikoa izan daitekeen arren, beste batzuei erreparatuz sintaktikoa izan daiteke (Artiagoitia 2018: 6. oin-oharra). Siloni eta Reinhartek (2005) hainbat hizkuntzatako bihurkariak aztertu dituzte, eta hauen lanean oinarrituta, Uribe-Etxeberria eta Etxeparek (2012) euskarazko bihurkari iragangaitzak lexikoan sortzen direla defendatzen dute. Silonik (2012: 304) aurreikusten duen bezala parametroaren balioa forma morfologiko bera duten mekanismoetarako ezartzen bada, euskarazko bihurkari eta elkarkari iragangaitzen azterketa bateratua beharko litzateke, baita bestelako egitura iragangaiztuena ere (inpersonalak esaterako), euskarazko iragangaizte mekanismoa oro har zein motatakoa den zehazteko.

*Case Marking*) (§3.2.2.), aditz-izenei (§3.2.3.) eta *elkarkari etenei* (ing. *discontinuous reciprocals*) (Dimitriadis 2004) (§3.2.4.) erreparatuko diet. Laugarren atalean, euskarazko elkarkari iragangaitzetan elkarkaritzea bi modutan gerta daitekeela proposatuko dut: lexikoetan, paketatzearen bidez (§4.1.); eta sintaktikoetan, errolen esleipen parasitikoaren bidez (§4.2.). Amaitzeko, lan honen ondorioak aurkeztuko ditut (§5).

## 2. Euskarazko egitura elkarkariak

Euskarak bi motatako egitura elkarkariak ditu: batetik, egitura iragankorrak; bestetik, egitura iragangaitzak. Atal honetan elkarkari iragankorren egitura aztertuko dut lehenik (§2.1.), ondoren (§2.2.) elkarkari iragangaitzak nolakoak diren eztabaidatzeko.

### 2.1. Elkarkari iragankorrak

Euskaraz egitura elkarkari kanonikoak iragankorrak dira, (1) bezalakoak, literaturan bereziki aztertu direnak (Rebuschi, 1988, 1992; Salaburu 1986). Egitura elkarkari iragankorrak anafora elkarkarien bidez sortzen dira eta euskaraz *elkar* anafora darabilgu besteak beste.<sup>4</sup> Anafora elkarkariaren bidez osatutako egitura iragankorrei *elkarkari perifrastiko* ere deitu izan zaie literaturan (Siloni 2012: 261), eta halakoxea da euskaraz duguna.

(1) Mirenek eta Anek elkar ikusi dute.

Elkarkari perifrastikoeak, bestelako egitura iragankorrek bezala, predikatu iragankor bat izaten dute, bi argumentu eskatzen dituen, alegia, kanpo eta barne argumentua. Esaterako, (1)eko *ikusi* predikatuaren kanpo argumentua *Mirenek eta Anek* Determinatzaile Sintagma (DS) da eta barne argumentua, berriz, *elkar* anafora elkarkaria. Horrez gain, *ikusi* predikatuak bi errol tematiko esleitzen ditu: esperimentatzaile errol tematikoa esleitzen dio kanpo argumentuari eta gaia errola, berriz, barne argumentuari.

Euskara bezalako hizkuntza *ergatibo*etan ohi den bezala,<sup>5</sup> perpaus iragankorren subjektua ergatibo kasuaz markatuta dago, euskaraz *-k* ageriko kasu markaz zehazki: *Mirene-k eta Ane-k*. Osagarriak, ostera, absolutibo kasua jasotzen du, euskaraz ez-markatua dena: *elkar-Ø*. Dena den, perpaus betetzen duen funtzioaren arabera, beste kasu marka batzuk ere har ditzake.

<sup>4</sup> *Batak bestea* anafora elkarkaria ere erabil daiteke euskaraz egitura elkarkari iragankorrak sortzeko. Honetaz, ikus Urrutia, Beitia eta Artiagoitia (2015) eta Artiagoitia (2018).

<sup>5</sup> Hizkuntza ergatiboeak perpaus iragankorretako subjektuak ergatibo kasuaz markatzen dituzte; osagarri zuzenak eta perpaus iragangaitzetako subjektuak, aldiz, absolutibo kasuaz (Dixon 1979; Comrie 2013).

Hain zuzen, anafarak perpausean betetzen duen funtzioaren arabera, Zúñiga eta Kittiläk (2019: 159) euren sailkapen tipologikoan *bihurkari zuzenak* (ing. *direct reflexives*) eta *zeharkarko bihurkariak* (ing. *indirect reflexives*) bereizi dituzte egitura bihurkarietan. Bihurkarietarako proposatzen den bereizketari jarraituz, (1)eko egiturei *elkarkari zuzen* deituko diet, anafora elkarkariak, absolutibo kasua jasotzen duena, osagarri zuzenaren gunea hartzen baitu. Anafarak zehar osagarri funtzioa betetzen duenean, berriz, *zeharkako elkarkari* deituko diet egile hauei jarraituz. Anafora elkarkariak zehar osagarriaren funtzioa duenean, orduan *-i* datibo kasu marka hartzen du, (2) adibidean bezalaxe. Kasu markez gain, beste edozein DSak bezala, anafora elkarkariak postposizioak ere har ditzake: (3) adibidean *-engan* postposizioa, inesibo biziduna hartzen du.

- (2) Mirenek eta Anek elkarr-i oparia eman diote.
- (3) Mirenek eta Anek elkarr-engan sinesten dute.
- (4) \*Elkarr-ek Miren eta Ane maite dute

Kasu marka eta postposizioei dagokienez, anafora elkarkariak murriztapen bakarra du, gainerako DSek ez dutena: *-ek* ergatibo kasua da jaso ezin duen kasu marka bakarra, (4) adibidean ikus daitekeen bezala (Salaburu 1986; Artiagoitia 2000, 2003).

Horrez gain, euskara *aditz laguntzailearen txandakatzea* duen hizkuntza da —McFadden (2007); euskararako, ikus Albizu (2001) eta Hualde (2003) beste batzuen artean— eta perpaus iragankorretan *\*edun/\*ezan* laguntzaile iragankorrek hautatzen dira, *izan/\*edin* iragangaitzen orde<sup>6</sup>. Hala da (1) adibidean ere, *\*edun* laguntzaile iragankorra hautatzen baita. Horrez gain, euskaraz aditz inflexioak ergatibo eta absolutibo argumentuekin komunztadura egiten du. Numeroari eta pertsonari dagokienez, anafora elkarkariak singularreko hirugarren pertsonako komunztadura du beti aditz inflexioan.

Egitura elkarkari iragankorrek, hortaz, euskaraz edozein egitura iragankorrek dituen ezaugarriak ditu kasuari, komunztadurari zein aditz laguntzaileari dagokienez. Horrez gain, egitura elkarkariak berezko dituzten ezaugarri batzuk ditu baita (1)eko egiturak ere. Batetik, perpausaren kanpo argumentua nahitaez plurala izan behar da, entitate bi edo gehiagori egin behar die erreferentzia, alegia.<sup>7</sup> (1) adibidean Miren eta Ane dira bi norbanakoak, juntadura bidez lotutakoak.

---

<sup>6</sup> Aurrerantzean *izan/\*edun* aditz laguntzaileen aipamena baino ez dut egingo, baina oinarrian *\*edin/\*ezan* ere gogoan ditut.

<sup>7</sup> Salbuespena (§3.2.4.) atalean aztertuko ditugun elkarkari etenak dira. Subjektu singularra izan dezaketen arren, egitura hauek esanahi elkarkaria dute.

Bestetik, (1) bezalako egitura elkarkariak *elkarrekikotasun* harremana adierazten dute kanpo argumentua osatzen duten entitateen artean. Hain zuzen, (1)ean Miren eta Ane norbanakoek<sup>8</sup> bata bestea ikusten dute. Hala, ikustea bi norabidetan gertatzen da: Mirenek Ane ikusten du eta Anek Miren ikusten du. Elkarrekikotasun harreman hori barne argumentua den *elkar* anafora elkarkariak adierazten du. Anaforaren orde, adibidez, *filma* izan balitz barne argumentua, orduan egitura ez litzateke elkarkaria izango. Hain zuzen ere, *elkar* bezalako anaforen ezaugarria da perpauseko beste DS bati erreferentzia egitea. Anafora esaten diegu testuinguru linguistikotik erreferentzia hartzen duten elementu linguistikoei. Izan ere, anaforek euren erreferentzia testuinguru linguistikoan lehenago agertu den beste DS batetik hartzen dute eta DS honi *aitzindari* deritzo. Zehazki, (1)ean anaforak kanpo argumentuko Miren eta Ane norbanakoei egiten die erreferentzia, hots, *Mirenek eta Anek* DSa, anaforaren aitzindaria da. Beraz, kanpo eta barne argumentuak erreferentziakideak dira.

Aldiz, anafora elkarkaria ezin da subjektu gunean agertu, kasu horretan ez bailuke erreferentzia hartzeko aitzindaririk. Hain zuzen, hauxe da (4) perpausean anaforak ergatibo kasua ez onartzearen arrazoia. Dena den, (5) perpausean ere, subjektua absolutiboz markatu arren, *elkar* anafora ezin da subjektu gunean agertu; hartzen duen kasu marka gorabehera, gune sintaktiko horretan ez duelako erreferentzia hartzeko modurik (Salaburu 1986: 369; Artiagoitia 2003: 609):<sup>9</sup>

(5) \*Elkar Epi eta Blasekin joan dira

Laburbilduz, elkarkari iragankorrek euskarazko egitura iragankorren ezaugarri morfologikoak erakusten dituzte kasu markapenari, komuntadurari eta aditz laguntzaileari dagokienez. Esanahiari dagokionez, egitura hauek subjektuan adierazten diren bi entitateren arteko elkarrekikotasun harremana adierazten dute. Harreman hori, *elkar* anafora elkarkariari esker adierazten da elkarkari iragankorretan. Anafora honek hainbat kasu edo postposizio jaso ditzake: absolutibo kasua (elkarkari zuzenak sortuz), datibo kasua (zeharkako elkarkariak sortuz) edo edozein postposizio. Honi dagokionez, murriztapen bakarra ergatibo kasuari dagokio, ezin baitu kasu hau jaso. Orobat, *elkar* anafora ezin da subjektu gunean egon.

---

<sup>8</sup> Haspelmathek (2007: 2088) *mutuant* terminoa proposatzen du elkarrekikotasun harremanean dauden bi entitate edo norbanakoetako bakoitzari erreferentzia egiteko.

<sup>9</sup> Anafora diren DSeK izan ditzaketen erreferentzia aukerak *Uztardura Teoriaren* bidez azaltzen dira gramatika sortzailean. Teoria honen arabera, anaforek uztartuta egon behar dute euren eremu hurbilean. Honetaz, ikus Chomsky (1988); euskararako, ikus Artiagoitia (2000).



## 2.2. Elkarkari iragangaitzak

Euskaraz egitura elkarkari iragankorrez gain badaude egitura elkarkari iragangaitzak ere.<sup>10</sup> Elkarkari iragangaitzak ez dira kanonikoak, hau da, ez daude euskara baturako jasoak, baina lagunarteko hizkeran entzun daitezke, hizkera batzuetan behintzat, baita sare-sozialetan irakurri ere (Bilbao, Berro eta Fernández argitaratzeak).<sup>11</sup>

Behean (6a) berriro jaso dut (1)eko elkarkari iragankor kanonikoa, kideko elkarkari ez-kanoniko iragangaitzarekin batera (6b):

- (6) a. Mirenek eta Anek elkar ikusi dute.
- b. Miren eta Ane ikusi dira.

Dena den, (6b) bezalako perpausak, egitura iragangaitzak baino areago, *egitura iragangaiztuak* (ing. *detransitivized*) direla esan liteke. Izan ere, (6)eko bi perpausak *ikusi* aditza dute predikatutzat eta berau iragankorra da, lehenago ere esan dudana bezala, espermentatzaile eta gai errolak jasotzen dituen bere argumentu egituraren. Alabaina, (6a) adibidean ez bezala, (6b)n, argumentu bakarra dago, *Miren eta Ane* D<sub>Sa</sub>, alegia. Hortaz, predikatu iragankor baten gainean eraiki denez, egitura berez iragangaitza baino, iragangaiztu dela dirudi. Ñabardurak gorabehera, elkarkari iragangaitzez hitz egingo dut lan honetan.

Bestalde, elkarkari iragangaitzak (6b) elkarkari iragankor kanonikoekin (6a) konparatuz gero, badaude aldeak. Lehenik eta behin, (6b)k egitura iragangaitzen itxura du: argumentu bakarra du, *Miren eta Ane* D<sub>S</sub>, absolutiboz markatua. Horrez gain, ez dago anafora elkarkaririk, agerian behintzat. Ondorioz, (6a) adibidetik bereizten da, bertan bi argumentu baitaude eta barne argumentua anafora elkarkaria baita. Gainera, (6b)n *izan* laguntzaile iragangaitza hautatu da, (6a)ko *\*edun* laguntzailearen ordean. Aditz laguntzaile honekiko komuntadura bakarra absolutiboa da (6b)n. 1. taulan bildu ditut elkarkari iragankor eta iragangaitzen arteko desberdintasunak:

---

<sup>10</sup> Euskaratik kanpo arakatu den fenomeno da elkarkariak egitura iragangaitzen bidez adieraztea. Zuñiga eta Kittilären (2019: 161) hurbilketa tipologikoari jarraiki, bi motatakoak izan daitezke egitura bihurkariak eta elkarkariak munduko hizkuntzetan: i) boz aktiboko egitura iragankorrak eta ii) *boz bikoitzeko egitura* (ing. *duplex voice construction*) deritzena, hau da, argumentu berak errol tematiko bi hartzen dituen egitura iragangaitzak. Euskarazko egitura elkarkari iragankorrak (6a) i) multzoan sailkatuko liriteke; iragangaitzak (6b), aldiz, ii) multzoan.

<sup>11</sup> Lekukotasun historikoei dagokienez, gure testuetan elkarkari iragangaiztu gutxi aurkitu ditu Mounolek (2014 [2018]), eta hauek XVIII. mendetik aurrera soilik. XVIII. mendean adibide bakarra dugu, Elizalderena, garai hartan ohikoa ez zen seinale Mounoleren arabera (2014 [2018]: 286): *Cergatic, nola adisquideac baytire, beti biac acompañatzen dire.*

Elkarkariak	Iragankorrak	Iragangaitzak
Argumentu kopurua eta kasu markapena	Bi argumentu: ergatibo eta absolutiboa	Argumentu bat: absolutiboa
Anafora esplizitua	✓	✗
Aditz laguntzailea	* <i>edun</i>	<i>izan</i>
Komuntadura	Absolutiboa eta ergatiboa	Absolutiboa

1. taula

### 2.2.1. Elkarkari iragangaitzen berezitasun morfosintaktikoak

Elkarkari iragangaitzek iragankorrek ez bezalako murriztapen morfosintaktikoak erakusten dituzte. Atal honetan murriztapen horietaz arituko naiz.<sup>12</sup>

Hasteko, Albizuk (2001: 66) murriztapen morfologiko bat azpimarratzen du egitura elkarkari –eta bihurkari– iragangaitzetan: adizki trinkorik ez onartzea (7a). Izan ere, elkarkari iragangaitzek (7b) adizki analitikoak baino ez dituzte onartzen.<sup>13</sup>

- (7) a. \*Miren eta Ane kalean zekusaten  
b. Miren eta Ane kalean ikusten dira.

Ezaugarri honetan, elkarkari iragangaitzek inperzonalak bezala jokatu dute (8). Hain zuzen, inperzonalak ere morfologikoki egitura iragangaiztuak dira (Ortiz de Urbina 2003; Fernández eta Berro 2021; Berro, Odria eta Fernández 2022).

- (8) a. \*Arraina Ondarrutik zekarren arraindegira  
(Irakurketa: \*inperzonal gisa, ✓ iragankor gisa.)  
b. Arraina Ondarrutik ekartzen da egunero. (Albizu 2001: 66)

Albizuren (2001) arabera, euskararen ezaugarri idiosinkrasikoa bide da hau, inguruko hizkuntzetan egitura sintaktiko hauek ez baitute antzeko murriztapen morfologikorik. Esaterako, gaztelaniaz (9):

- (9) Nos vemos/hemos visto todos los días.  
'Egunero dakusagu/ikusten gara.' (hitzez hitz)<sup>14</sup>

<sup>12</sup> Bihurkari iragangaitzetarako, ikus Bilbao, Berro eta Fernández (argitaratzeaz) edota Bilbao (2021).

<sup>13</sup> Mounolek (2014 [2018]: 144) ere aipatzen du XV–XVIII. mendeetako egitura iragangaitzetan ez duela adizki sintetikorik aurkitu.

<sup>14</sup> Adibideen itzulpenak nireak dira, beste ezer adierazi ez.

Bestalde, elkarkari iragangaitzek murriztapen sintaktiko bat dute. Murriztapen sintaktiko hau azaltzeko, Haspelmath (2007: 2092) egiten duen ondoko bereizketa hau izan dezakegu gogoan, hots, *elkarkaritzaille* (ing. *reciprocator*) eta *elkarkaritu*en (ing. *reciproce*) artekoa. Egitura ez-elkarkarietan, (10a) bezalakoetan, aditz iragankorrek bi argumentu dituzte, bata subjektu gunean –*Mirenek* DSa– eta bestea osagarri gunean –*Ane* DSa–:

- (10) a. Mirenek Ane ikusi du.  
b. Miren eta Anek elkar ikusi dute.  
b. Miren eta Ane ikusi dira.

Egitura elkarkaria sortzean, elkarrekiko harremana duten bi entitateak gune sintaktiko bakar batean bildu ohi dira<sup>15</sup> eta gune sintaktiko horri deritzo *elkarkaritzaille*. Euskaraz, hizkuntza askotan bezala (Haspelmath 2007), subjektu gunean biltzen dira. Hala da (10b) eta (10c) egitura elkarkarietan ere: Miren eta Ane norbanakoak, elkarrekiko harremana dutenak, perpausaren subjektu gunean biltzen baitira.

Aldiz, *elkarkaritu* deitzen zaio egitura ez-elkarkariko beste gune sintaktikoari. (10)eko adibideetan, elkarkaritu osagarri gunea da. Elkarkarituaren gunea hutsik gera daiteke edo anafora elkarkari batek bete dezake Haspelmathen (2007) arabera. Hain zuzen ere, euskaraz bi kasuak ditugu: elkarkari iragankorretan, *elkar* anafora elkarkariak betetzen du elkarkarituaren gunea (10b); elkarkari iragangaitzetan, aldiz, hutsik geratzen da (10c).

Elkarkaritzaillearen eta elkarkarituaren arteko bereizketa kontuan hartuz, errazago uler dezakegu literaturan elkarkari iragangaitzei dagokienez aipatu den bigarren murriztapena. Esan bezala, murriztapen hau sintaktikoa da. Honen berri Etxeparek (2003: 381) eta Albizuk (2001: 79) dakarte.

Etxepare (2003) eta Albizuren (2001) arabera egitura iragankorretan anafora elkarkaria absolutiboz markatzen denean soilik izango da zilegi kideko egitura iragangaitza, elkarkaritu osagarri zuzena denean alegia. Horixe da, hain zuzen, (10c) adibidearen kasua. Beraz, egile hauen esanetan, elkarkari iragangaitz zuzenak soilik dira gramatikalak.<sup>16</sup> Izan ere, aurreko atalean (§2.1.) azaldu dudana bezala, elkarkari zuzen iragankorretan anafora elkarkaria osagarri gunean eta absolutiboz markaturik agertzen da,

<sup>15</sup> Salbuespena elkarkari etenak dira (ikus §3.2.4). Egitura hauetan, entitate bat subjektu gunean ageri da, baina bestea PS batean.

<sup>16</sup> Antzeko jokabideak aurki daitezke munduko hizkuntzen artean. Esaterako, finlandierazko bihurkarietan, bihurkari zuzenak soilik dira posible egitura iragangaitzean; zeharkako bihurkariak, aldiz, anaforekin eraiki behar dira nahitaez (Zúñiga eta Kittilä 2019: 160, 7. oin-oharra).

(10b) adibidean bezalaxe. Beraz, Albizu (2001) eta Etxepareren (2003) usteari jarraituz gero, euskaraz egitura horien kideko iragangaitzak bakarrik dira gramatikalak, (10c) modukoak.

Hain zuzen, mota horretakoak dira gehien entzun eta irakurtzen diren elkarkari iragangaitzak. Nik bildutako datutegian,<sup>17</sup> *ikusi* (11) aditzarekin sortuak dira nagusi eta era askotakoak aurki daitezke: baiezekoan zein ezezekoan; batez ere lehenengo pertsona pluralean baina baita hirugarren pertsonan ere; orainaldian, lehenaldian, geroaldian, baldintzan...

- (11) a. Ez gea ‘ikusten’, baño zure ahotsa oso gertu sentitzet. (Joseba Sarrionandia, *Lapur banden etika eta politika*, 111 orr. *Eztabaidarako ohar batzuk* izeneko ataletik aterea, O.A. inizialeko norbaitek adierazitakoa).
- b. Bertan ikusiko gara. (I.S., *Ahoz aho*, EITB, 2019/11/19)
- c. Atzo ikusi ziren. (I.H., 2021/09/20)
- d. Baina irrifar bat ez da sekula faltako / Ikusten garenien / Danok batzen garenien. (Gatibu, *Musikak salbatuko gaitu* diska, ‘Bixotzetik’ abestia)
- e. Ia ikusten bagaran. (A.A., 2021/03/01)

Dena dela, *aurkitu* (12), *topatu* (13), *besarkatu* (14), *ezagutu* (15), *ulertu* (16) eta *begiratu* (17) aditzekin sortutakoak ere aurki daitezke:

- (12) a. Kanta hau “Bilatu gabe aurkitutakoak” deitzen da, maitasun istorio honetako protagonistak bilatu gabe aurkitu zirelako. (M.A., 2021/03/04)
- b. Adore pixka bat bildu dudanean erretrobisorean bilatu dut bestearen begirada (...) Ispiluan aurkitu garen arren, dagoeneko ni ez naiz begiratzen zuena eta berak nigan ez du ikusten lehenago ikusten zuena. (Eider Rodriguez, *Eraikuntzarako materiala*, 127. orr.)
- c. Bila ibili gabe aurkitu ziren. (Twitterreko mikroipuina, Egunean Behin jolasean)
- (13) a. Topatuko gara bidetik. (anonimoa, 2021/02/26)
- b. Kanean topatu gara kasualidadez nire laguna eta ni lehengo egunean. (M.R., 2021/02/27)

---

<sup>17</sup> Lekukotasun bakoitzaren ondoan inizialak eta data adierazi dut, lekukotasuna ahoz entzuna denean. Sare sozialetan bildu dudanean, erabiltzaile izena eta sare soziala adierazi dut. Gainerakoetan, lekukotasuna agertu den liburu, aldizkari, abesti edo telebista saioa aipatu dut. Telebista saioen eta aldizkarien kasuan, hiztunaren edo idazlearen inizialak eta data ere adierazi ditut. Horrez gain, amaieran zerrendatu ditut liburuetako adibideen aipamenak.

- (14) a. Elkarrekin otoitz egin dute bederatziek, elkarri bakea eskaini, besarkatu dira gutziaz kontu minbera hori lehen bai lehen akaba dadin. (X.M., *Herria*, 2001/01/18)
- b. Jai giroa izan da Erriberriko Plazoletan, (...) seme-alabak D ereduak matrikulatzeko hautua egin duten familiak besarkatu dira, urtero legez. (M.T., *Argia* 2018/04/16)
- c. Besarkatu egin dira. (Eider Rodriguez, *Eraikuntzarako materiala*, 157. orr)
- d. Besarkatu gaitezen! (@izaninurri, Instagram)
- (15) Txikitatik ezagutzen gara. (I.H., 2021/09/21)
- (16) Begiratu ginen Gorka eta ni. (A.E., 2021/10/20)
- (17) Gu ulertzen gara. (A.E., *Zurekin bat*, EITB, 2022/01/11)

Hortaz, Haspelmathen (2007) deiturak erabiliz, elkarkaritua osagarria duten elkarkari iragangaitzak soilik dira gramatikalak Albizu (2001) eta Etxepareren (2003) aburuz –(12)tik (17)ra bitarteko lekukotasunak bezalakoak, alegia–.

Egile hauek deskribatutako murriztapena aintzat harturik, elkarkari iragangaitzak ez dira gramatikalak kideko iragankorren anafora absolutiboa ez den beste kasu marka edo postposizio batez markatzea eskatzen duten aditzekin. Hala izanez gero, ez lirateke gramatikalak elkarkaritua osagarria ez duten duten elkarkari iragangaitzak. Horregatik, ezinezkotzat jotzen dituzte: i) zeharkako elkarkari iragangaitzak (18b) –elkarkaritua zehar osagarria dutenak– eta ii) aditzaren argumentutzat Postposizio Sintagma (PS) bat duten elkarkari iragangaitzak (19b) –hots, elkarkaritua PS dutenak–. Aldiz, perpaus berak anaforekin zilegi dira –(18a) eta (19a)–.

- (18) a. Mirenek eta Anek elkarri oparia eman diote.
- b. \*Miren eta Ane oparia eman dira
- (19) a. Mirenek eta Anek elkarrengan sinesten dute.
- b. \* Miren eta Ane sinesten dira

Azken hauekin hasita, (19a)n subjektua, hau da, elkarkaritzaila, ergatiboz markatzen da –*Mirenek eta Anek*–. Anaforak, aldiz, postposizio bat –kasu honetan -engan inesibo biziduna– hartzen du. (19b)n, ordea, egitura iragangaiztu ostean subjektuak

absolutibo kasua eta komunztadura izan behar du ezinbestean. Horrez gain, ez dago postposizioa hartuko duen anaforarik, eta beraz, postposizioaren esanahia galtzen da. Hala, honelako egiturak ez-gramatikalak dira.

Zeharkako elkarkari iragangaitzen kasuan (18b), ez-gramatikaltasunaren arrazoa aurkitzen saiatzen da Albizu (2001: 81). Egile honen arabera, murriztapena eragiten duena aditz laguntzaile iragangaitzek morfologikoki absolutibo komunztadura bat baino gehiago adierazteko ezintasuna da. (18) adibidea astiroago aztertuz ikus daiteke Albizuk (2001) aipatutako arazoa.

(18a) bezalako perpaus ditransitiboetan hiru argumentu daude: lehenik, ergatiboz markatutako subjektua –*Mirenek eta Anek* DSa, elkarkaritzaila dena–; bigarrenez, absolutiboz markatutako osagarri zuzena –*oparia*–; eta, azkenik, datiboz markatutako zehar osagarria –*elkarri* anafora elkarkaria–. Elkarkaritua, beraz, zehar osagarria da; egitura, berriz, zeharkako elkarkaria.

Egitura iragangaiztuz gero (18b), datiboz markatutako anafora ez da ageri eta elkarkarituaren gunea –hots, zehar osagarria– hutsik geratzen da. Bestalde, *Miren eta Ane* DS absolutiboz markatzen da. Ondorioz, argumentu bi gelditzen dira absolutiboz markaturik: subjektua eta osagarri zuzena. Aditz laguntzaileak, aldiz, ezin du bi argumentu absolutiboekiko komunztadura egin. Izan ere, *izan* aditz laguntzaile iragangaitzak absolutibo komunztadura argumentu bakarrarekin egin dezake, ez, ordea, bi argumenturekin.

Hala ere, noizean behin zeharkako elkarkari iragangaiztuen adibideak entzun daitezke, aurretik esandakoak esanda espero izatekoak ez direnak, esaterako:

- (20) a. Dena kontatzen diogu elkarri.  
b. Dena kontatzen gara. (J.I., 2022/04/05)

- (21) a. Batzuetan elkarri idazten diogu.  
b. Batzuetan idazten gara. (I.H., 2021/09/20)

Adibide hauek guztiak zeharkako elkarkariak dira, elkarkaritua zehar osagarria baita: (20a) eta (21a) iragankorrek dira eta datiboz markatutako anafora elkarkaria dute; (20b) eta (21b), aldiz, iragangaitzak. Iragangaiztea gertatzen denean, (20b) eta (21b)n ikus daitekeen bezala, aditzak egile errola duen argumentuarekiko komunztadura absolutiboa soilik erakusten du. Gainera, ez dago datiboz markatutako anafora elkarkaririk, ezta berarekiko

datibo komunztadurarik ere; horren ordez, elkarkarituaren gunea hutsik dago.<sup>18</sup> Azkenik, (20b) adibidean, aditzak ez dauka gaia errola duen argumentuarekin –dena DSa– komunztadurarik, ziurrenik Albizuk (2001) aipatutako ezintasunagatik: *izan* laguntzaile iragangaitzak absolutibo komunztadura bakarra izan dezake.<sup>19</sup> Gaiarekiko komunztadurarik izan ez arren, badirudi hiztun gutxi batzuek halakoak onartzen dituztela, interpretazio elkarkariarekin onartu ere (Albizu 2001: 80).

Beste alde batetik, hizkera batzuetan<sup>20</sup> elkarkari iragankor eta iragangaitzen arteko fenomeno bat aurki daiteke, *egitura mistoa* deituko dudana (Bilbao, Berro eta Fernández argitaratzeak). Egitura iragangaiztua duten perpausak izan arren, anafora lexikoa agerian dute:

(22) Miren eta Ane elkar ikusi dira.

(22) elkarkari zuzena da, elkarkaritua osagarri zuzena baita eta anafora elkarkaria absolutiboz markatuta baitago. Bestalde, bi argumentudun perpausak dira: batetik, subjektu gunean dagoen *Miren eta Ane* DSa; bestetik, osagarri guneko anafora elkarkaria. Hortaz, printzipioz, egiturak iragankorra beharko luke, eta ondorioz, \**edun* aditz laguntzaile iragankorrek komunztadura ergatiboa eta absolutiboa erakutsi beharko lituzke. Oso bestela, *izan* aditz laguntzaile iragangaitza dute perpausok eta esperimantatzailearekiko komunztadura absolutiboa ageri da soilik; anaforak, aldiz, ez du komunztadurarik erakusten. Halakoak dira, esate baterako, J.A. Mogelen (23a) eta Iturzaetaren (23b) adibideak.<sup>21</sup>

(23) a. Ez dira alkar ikusten. (J.A. Mogel, 1803)

---

<sup>18</sup> Munduko beste hizkuntza batzuetan, Indiako mundarieran –austroasiar hizkuntza familiakoa– esaterako, (Eberhard, Simons eta Fennig 2022), gauza bera gertatzen da. Hizkuntza honetan, elkarkari iragangaitz kanonikoak elkarkari zuzenak dira; zeharkako elkarkariak, aldiz, ez-kanonikoak. Azken hauetan, osagarri zuzena gordetzen den arren, elkarkari iragangaitzetako marka morfologikoa erabiltzen da, iragankorre dagokien marka erabili beharrean (Osada 2007: 1582).

<sup>19</sup> Nahiz eta datibo komunztadura agertzeko *izan* aditz laguntzaileak ez lukeen inolako murriztapen morfologikorik, absolutibo-datibo saileko aditzetan ikus dezakegunez (Albizu 2001: 80; Etxepare & Uribe-Etxebarria 2012: 313).

<sup>20</sup> Egitura mota hau mendebaldeko hizkeretakoa dela aipatzen du Artiagoitiak (2003: 618). Hala ere, fenomenoaren hedadura dialektala gehiago aztertu beharko litzatekeela uste dut, bildutako lekukotasun guztiak ez baitira halabeharrez mendebaldeko hiztunenak.

<sup>21</sup> Mitxelena *Orotariko Euskal Hiztegi*ko (1987–2005) *elkar* hitzaren sarreran beste hainbat adibide dakartza, baita egitura mistoei buruzko gogoeta diakroniko bat ere. Egile honek dioenez, Larramendiren osteko Hegoaldeko idazleengan *elkar* anafora kasu markarik gabe erabiltzeko ohitura zabaldu zen, ihartze bat balitz bezala. Adibidez, datibo gabe: *biak elkar eraso zioten* (Larramendi 1745). Anaforaren erabilera hau adberbio baten erabilera hurbiltzen denez, testu batzuetan komunztadura datiboa ere galdu zuen, eta laguntzaile iragangaitza erabiltzen hasi zen XIX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera. Hain zuzen ere, mota honetakoak dira nik bildutako adibideak (24).

b. Ezkonduak alkar maitetu bear dirala. (Iturzaeta, 1899)

Hemen nire bilketako beste zenbait adibide:

(24) a. Elkar besarkatu dira. (X.U., *Euskal Herriko Itzulia 6. etapa*, EITB, 2021/04/10)

b. Laster ikusiko gara elkar. (I.E., 2021/02/14)

c. Elkar ezagutzen garenez... (I.E., idatzizko dokumentua)

d. Elkar babes gaitezen! (@ehule, Instagram)

e. Ze ondo maite garen elkar. (@izaroandres, Instagram)

Oso bestela, (25)eko perpausa, zeharkako elkarkari mistoa da. Izan ere, anafora elkarkaria datiboz markatuta dago, hots, elkarkarituak zehar osagarri funtzioa du.

(25) Miren eta Ane elkarri oparia eman dira.

Honetan ere, egitura iragankorra esperoko genuke. Izan ere, hiru argumentuko –subjektua, osagarri zuzena eta zehar osagarria– egitura ditransitiboa da (25)ean duguna. Alabaina, ez dago ergatibo ez datibo kasurik, ezta komunztadurarik; horren ordez, bai subjektua bai osagarri zuzena absolutiboz markatuta daude. Gainera, aditz laguntzailea *izan* da, hau da, iragangaitza, eta absolutibo komunztadura erakusten du. Zeharkako egitura mistoak dira (26)ko bi adibideak ere: (26a)n (25) bezalako egitura ditransitiboa dugu; (26b)n, aldiz, aditz inergatibo datibodun bat dugu oinarrian, hots, ergatibo eta datibo komunztadura beharko lituzkeena.

(26) a. Kartak bidaltzen ginen elkarri. (M.M., *Barre Librea*, EITB 2021/06/03)

b. Eta orain, begiratuko gara elkarri. (O.T., 2021/09/12)

Beraz, (24) eta (26)ko adibideek elkarkari iragankor eta iragangaitzen tarteko egitura bat erakusten dute. Batetik, elkarkari iragankorrek bezala, anafora elkarkaria agerian dute; bestetik, elkarkari iragangaitzek bezala, absolutiboz markatutako subjektua eta *izan* aditz laguntzaile iragangaitza dute, komunztadura absolutiboa erakusten duena.

### 3. Elkarkari lexikoak vs elkarkari sintaktikoak

Orain arte elkarkari iragangaitzez aritu bagara ere, Silonik (2012) munduko hizkuntzetako elkarkari iragangaitzak bi motatan bereiz daitezkeela erakutsi du: elkarkari lexikoak eta elkarkari sintaktikoak. Hizkuntzen arteko banaketa hori azaltzeko, *Hiztegiaren edo*



*Sintaxiaren Parametroa* (ing. *Lex(icon)-Syn(tax) parameter*) erabili du: hizkuntza batzuetan elkarkariak lexikoan sortzen dira, hala nola, hebraieraz, hungarieraz eta errusieraz; beste batzuetan, berriz, sintaxian eratzen dira, hizkuntza erromantzeetan esaterako.

Atal honetan, euskarazko elkarkari iragangaitzak Siloniren (2012) proposamenaren arabera aztertuko ditut, mota batekoak edo bestekoak diren zehazteko. Horretarako, elkarkari lexikoak eta elkarkari sintaktikoak banatzen dituzten ezaugarriak arakatuko ditut lehenik, bai aditzei dagokienez bai jokabide morfosintaktikoari dagokionez.

### 3.1. Aditzak

#### 3.1.1. Simetrikotasuna

Egitura elkarkari guztiek, izan lexikoak zein sintaktikoak, egoera simetriko bat adierazten dute: “A mutual situation can be defined as a situation with two or more participants (A, B, ...) in which for at least two of the participants A and B, the relation between A and B is the same as the relation between B and A”<sup>22</sup> (Haspelmath 2007: 2087).

Alabaina, elkarrekiko harremana ez da guztiz bera bi motatako egituretan: elkarkari lexikoak sortzen dituzten aditzak *predikatu alelikoak* (ing. *allelic predicates*) dira (Haspelmath 2007: 2104)<sup>23</sup> (27), elkarkari sintaktikoetako aditzak ez bezala (28).

(27) Miren eta Ane ezkondu/musukatu/dibortziatu/adiskidetu/elkartu dira.

(28) Miren eta Ane ikusi/ezagutu/maite/agurtu dira.

Predikatu alelikoek berez<sup>24</sup> adierazten dute egoera simetriko bat, “euren kabuz, inolako egitura gramatikal (morfologiko edo sintaktiko) berezitan agertu gabe”<sup>25</sup> (Haspelmath 2007: 2104). Euskaraz predikatu alelikoak dira, adibidez, *ezkondu*, *musukatu*, *dibortziatu*, *adiskidetu* edo *elkartu* (27).

Predikatu hauek *ebentu atomiko* (ing. *atomic event*) (Siloni 2012) bat adierazten dute. Ondorioz, adierazten duten *ebentua singularra* (ing. *singular event*) (Siloni 2012)<sup>26</sup>

---

<sup>22</sup> “Elkarrekiko egoera bat bi parte-hartzaile edo gehiago (A, B, ...) dituen egoera bat bezala definitu daiteke, zeinetan gutxienez A eta B bi parte-hartzaileentzat A eta Bren arteko harremana B eta Aren arteko harremana bezalakoa den” (itzulpena nirea da).

<sup>23</sup> Silonik (2012: 268) *symmetric verbs* deitura darabil kontzeptu hau izendatzeko. Haspelmathen (2007: 2104) arabera, izendapen hau arazotsua da, elkarkari lexikoez gainerako egitura elkarkariek ere egoera simetrikoak adierazten baitituzte.

<sup>24</sup> Elkarkari lexikoak sortzen dituzten aditz simetrikoen antzera, bihurkarietan ere *berezko bihurkari* (ing. *inherent reflexive verbs*) deritzen aditzak daude, anaforaren beharrik gabe bihurkarietasuna adierazten dutenak, hala nola *jantzi* edo *garbitu* (Etxepare 2003: 383).

<sup>25</sup> Itzulpena nirea da.

<sup>26</sup> Haspelmathen (2007: 2107) *uniplex mutual event* deritze.

da, ezin baita hainbat azpi-ebentutan dekonposatu (Haspelmath 2007: 2107; Siloni 2012: 262). Horregatik, (27) ezin da parafraseatu esanez *Mirenek Ane ezkondu du* eta *Anek Miren ezkondu du*, ebentua ezin delako azpi-ebentutan banatu. Kasu honetan, ezkontza (dibortzio, musukatze...) bakarra egon dela adierazten du (27)ko perpausak, ebentu bakarra beraz.

Gainera, ebentu horretako parte hartzaileek parte hartze berbera dute ebentuan (Dimitriadis 2004: 3). Hala, (27)ko perpausean bi parte hartzaileak, Miren eta Ane, ebentuaren egile eta gaia dira batera eta parte-hartze berbera dute.

Beste aditz batzuekin sortutako elkarkarietan, aldiz, ebentua hainbat azpi-ebentutan dekonposa daiteke. Adibidez, (28)ko ebentua pluralak dira, hainbat ebenturen bidez adierazi baitaitezke. (28)ko perpausa bi azpi-ebentutan banatzea posible da eta azpi-ebentu horietako bakoitzean, subjektuko parte hartzaile bakoitzak errol tematiko bat izango du: *Mirenek Ane ikusi du* (Miren esperimendatzailea eta Ane gaia) eta *Anek Miren ikusi du* (Ane esperimendatzailea eta Miren gaia). Aditz hauek ez dira berez simetrikoak, hainbat ebenturen gehiketaz adierazten baita egoera simetrikoa.

Simetrikotasunean dituzten desberdintasunen ondorioz, Silonik (2012: 266) erakutsi du *bost aldiz bezalako zenbatze adberbio* (ing. *counting adverbial*) (Siloni 2012)<sup>27</sup> bat erabiltzean, elkarkari lexikoek eta elkarkari sintaktikoek ez dituztela irakurketa aukera berberak.

- (29) a. Miren eta Ane bost aldiz musukatu dira. (bost musukatze/ \*hamar musukatze)  
b. Miren eta Ane bost aldiz ikusi dira. (bost ikustaldi/ hamar ikustaldi)

Artiagoitiak (2018: 6. oin-oharra) adierazten duen bezala, (29a)n bost musukatze bakarrik egon direla uler daiteke, hots, Silonik (2012: 266) *irakurketa kolektiboa* (ing. *collective reading*) deritzona da irakurketa aukera bakarra. Jokabide hau predikatu alelikoek erakusten dute; ezin direnez azpi-ebentutan dekonposatu, ebentu atomikoak adierazten baitituzte, ebentuko parte hartzaile biek aldi berean parte hartzen dute ebentuan, kolektiboki, eta ebentu kolektibo hori bost aldiz errepikatzen da.

Elkarkari sintaktikoetan (29b), oster, irakurketa kolektiboaz gain *irakurketa banatzailea* (ing. *distributive reading*) (Siloni 2012: 266) ere posible da, azpi-ebentutan banatzeko aukerari esker. Adibidez, (29b)n hamar *ikustaldi* egon direla uler daiteke: bost aldiz *Mirenek Ane ikusi du* eta beste bost aldiz alderantziz. Irakurketa banatzailearen beste aukera da bost ikustaldi soilik egon izana, batzuetan Miren eta beste batzuetan Ane izan

---

<sup>27</sup> Haspelmath (2007: 2107) *multiplicative adverbial* deritze.

direlarik pertzepzioaren esperimendatzaileak. Izan ere, irakurketa banatzaileetan, bost ikustaldiak ebentuko parte hartzaileen artean bana daitezke, ebentua hainbat azpi-ebentuk osatzen dutelako.

### 3.1.2. Emankortasuna

Elkarkari lexikoak sortzen dituzten aditzek multzo itxia osatu ohi dute (Siloni 2012: 277–278). Gainera, semantikoki eremu mugatua hartzen dute elkarkari lexikoetako predikatuak; Haspelmathen (2007: 2090) dioenez, oro har gizakion arteko elkarrekintzekin, erlazio espazialekin eta identitatearekin lotutako predikatuak dira. Beste hizkuntza batzuetan bezala, euskaraz ere predikatu alelikoek multzo itxia osatzen dutela dirudi. Honakoak bildu ditut euskaraz, Haspelmathen (2007: 2104) banaketari jarraituz:

- (30) a. Norgehiagokarekin lotutako aditzak: *borrokatu, liskartu, haserretu, adiskidetu*.  
b. Arreta elkarbanatuko aditzak: *komunikatu, besarkatu, batzartu*.  
c. Konexio aditzak: *nahastu/nahasi, konbinatu, batu, elkartu, juntatu, ezkondu, bildu, geratu/gelditu*.<sup>28</sup>  
d. Banatze aditzak: *banatu, bereizi, dibortziatu*.

Elkarkari sintaktikoak sortzen dituen prozesu sintaktikoa, berriz, emankorra izan ohi da eta askotariko aditzak onartzen ditu (Siloni 2012).<sup>29</sup> Etxeparek (2003: 384–385) dioenez, elkarkari iragangaitzak onartzen ez dituzten aditzak aldaera iragangaitza *inkoatiboa* (Berro, Oihartzabal eta Fernández 2018) dutenak dira: *erre, puztu, ito, zuritu...* Horrez gain, aditz estatibo batzuek onartzen dutela adierazten du (*maite izan, ezagutu*), ez ordea guztiek: *hobetsi* eta *miretsi* dakartza adibide gisa. Dena dela, mugak muga, euskaraz ere badirudi elkarkaritze sintaktikoa prozesu emankorra dela, lexikoa ez bezala.

### 3.1.3. Sarrera izoztuak, aldaketa semantikoa eta lokuzioak

Elkarkari lexikoetako eta sintaktikoetako aditzak bereizteko beste ezaugarri bat da kideko aditz iragankorra existitzea. Elkarkari sintaktikoak egitura iragangaitzak izan arren, aditz iragankor bat dute beti euren oinarrian, hizkuntzaren hiztegian zerrendatua dagoena.

---

<sup>28</sup> *Bildu, geratu* eta *gelditu* aldaera ez-estandarretan erabiltzen dira ‘elkartu’ adieran.

<sup>29</sup> Berdin gertatzen da bihurkarien kasuan ere. Berezko bihurkariak adierazten dituzten aditzek multzo itxia osatzen dute; aldiz, gainerako aditzekin osatutako bihurkari iragangaitzak sortzeko prozesua emankorra dela dirudi. Etxeparek (2003: 380–381) egitura iragangaitzak onartzen zituzten predikatuak mugatu bazituen ere, badirudi hiztunek gero eta predikatu gehiago onartzen dituztela bihurkari iragangaitzetan (Bilbao, Berro eta Fernández argitaratzeak: 6–7) eta ez litzateke harrigarria izango elkarkarietan ere hala izango balitz.

Elkarkari lexikoak sortzen dituzten predikatu alelikoak, berriz, aditz iragangaitzak lirateke. Aditz horiek kideko iragankorra ere izan dezakete hizkuntza horren lexikoan zerrendatuta, baina ez du hala izan behar. Honen zergatia azaltzeko, Silonik (2012: 294) proposatu du lexikoan sarrera izoztu batzuk daudela. Sarrera izoztu horiek lexikoan soilik leudeke eskuragarri, eta beraz, horietatik predikatu alelikoak sortzea posible litzateke. Alabaina, lexikoan existitzen diren arren, ez daude hizkuntza horretako hiztunentzat erabilgarri, ezin dira eratorpen sintaktikoan erabili, eta ondorioz, ezin dute elkarkari sintaktikorik sortu ere. Horregatik, elkarkari sintaktikoak beti oinarritzen dira kideko predikatu iragankor bat duten aditzetan, predikatu iragankor horiek hiztunaren hiztegiaren parte direnez, eratorpen sintaktikoan erabili daitezkeelako.

Hortik ondoriozta daiteke euskarazko elkarkari iragangaitz guztiak ez direla automatikoki elkarkari iragangaiztuak. Izan ere, elkarkari sintaktikoak –(§2.2.) atalean deskribatu ditugun guztiak halakoak dira– predikatu iragankor baten gainean eraiki dira nahitaez, eta egitura morfosintaktikoa da iragangaiztu dena, predikatua iragankorra izan arren:

- (31) a. Mirenek Ane ikusi du.  
b. Miren eta Ane ikusi dira.

Bestalde, predikatu alelikoek osatzen dituzten egituretan, batzuetan kideko aditz iragankorra existitzen da; beste batzuetan, aldiz, ez. Euskaraz, badirudi elkarkari lexikoetako aditz askok kideko iragankorra dutela (32), baina ez guztiek (33):

- (32) a. Mirenek Ane ezkondu/haserretu<sup>30</sup> du.  
b. Miren eta Ane ezkondu/haserretu dira.  
(33) a. \*Mirenek Ane batzartu/borrokatu du  
b. Miren eta Ane batzartu/borrokatu dira.

Honekin lotuta, predikatu iragankorraren gainean osatzen da elkarkari iragankorra. Horregatik, *batzartu* eta *borrokatu* bezalako predikatu alelikoek ez dute *elkar* anaforarekin osatutako elkarkari iragankorrik onartzen:

- (34) \*Mirenek eta Anek elkar batzartu/borrokatu dute

---

<sup>30</sup> *Haserretu* aditza inkoatiboa da (Bilbao, Berro eta Fernández argitaratzeaz). Beraz, kideko iragankorra, hots, (32a), egitura arazlea da.

Aldiz, *ezkondu* eta *haserretu* predikatu alelikoek egitura iragankorra onar dezakete. Hala ere, esanahi aldetik egitura iragankorra ez da egitura iragangaitzaren kideko (35). Hau elkarkari lexikoetan soilik gertatzen da, predikatu alelikoetan bakarrik alda baitaiteke jatorrizko aditzaren balio semantikoa, beste esanahi batzuk hartuz (Siloni 2012: 294). Izan ere, sarrera lexikoak diren aleek soilik jasan ditzakete horrelako aldaketa semantikoak, bestela esanahi berria ezingo bailitzateke hiztegiko zerrendan gehitu.

- (35) a. Mirenek eta Anek elkar ezkondu dute  $\neq$  Miren eta Ane ezkondu dira.  
b. Mirenek Anek elkar haserretu dute  $\neq$  Miren eta Ane haserretu dira.

- (36) a. Mirenek eta Anek elkar ikusi dute = Miren eta Ane ikusi dira.

Elkarkari sintaktikoetako aditzek, berriz, egitura iragankor zein iragangaitzean esanahi bera hartzen dute (36). Euren jatorrizko esanahia gordetzen dute, aldaera iragankorraren esanahi berbera, syntaxian elkarkaritzen baitira, eta beraz, ezin baitute lexikoan sarrera berri bat sortu (Siloni 2012: 294).

Euskarari dagokionez, Silonik (2012) aurreikusitakoa betetzen da. Elkarkari sintaktikoak sortzen dituzten aditzek ez dute aldaketa semantikorik jasaten eta aditz iragankorrak berez zuen esanahia gordetzen da, (36) adibidean erakutsi dudana bezala. Elkarkari lexikoek, berriz, bestelako esanahiak har ditzakete. Esaterako, *ezkondu* aditzak irudizko erabilera bat du, *Egungo Euskararen Hiztegiak* (Sarasola 2008) (37a) jasotzen duena. Esanahi honekin, aditzak egitura iragangaitza baino ez du onartzen, kideko aditz iragankorraren sarrera izoztuta –eta hiztunarentzat eskuragaitz– dagoen seinale (37b).

- (37) a. Zientzia aise ezkontzen da errealitatearekin.  
b. \*Mirenek bi asmo ezkondu ditu

Orobat, elkarkari lexikoetako aditzek kideko iragankorrek osatzen ez dituzten lokuzioak osa ditzakete. Adibidez, *ezkondu* aditzarekin jarraituz, *Euskal lokuzioak sarean* corpusean (Joxan Elozegi, Koldo Izagirre eta Josu Landa c. 2021) aditz honekin osatzen diren lau lokuzioak egitura iragangaitzaren adieran soilik ageri dira: *buruz buru ezkondu* (38a), *(inoren) andrea ezkondu eta gizonik ez hartu* (38b), *lapiko zaharrez ezkondu* (38c) eta *ohe bat ukan gabe ezkondu* (38d).

- (38) a. Bai, buruz buru ezkondu giñean. (Zamarripa, P. *Manual del vascófilo*, 1913)

- b. Zure andrea ezkondu zan eta eztuen artu gizonik. (A. Zavala, *Bertsolarien txapelketa*, 1967)
- c. Nola ezkontzen dira? elizaz; ala lapiko zarrez? (Urruzuno, P.M., *Iru ziri*)
- d. Ohe bat izangabe zoaz ezcontzerat: mingarri, denean mahain huts yaterat. (Hiribarren, J.M., *Eskaldunak*, 1855)

Elkarkari sintaktikoak, berriz, aditz iragankorraren gainean eratuta daude. Berau da lexikoan zerrendatuta dagoen aditza eta syntaxian egitura iragangaiztean esanahi elkarkaria hartzen duena. Esanahi elkarkaria duen aditza syntaxian sortzen denez, eta ez lexikoan, ezinezkoa da horretatik abiatuta lokuzio bat sortzea (Siloni 2012: 295).

## 3.2. Morfosintaxia

### 3.2.1. Kasua

Siloni (2012: 290) aztertutako hizkuntzetan –elkarkari lexikodun zein elkarkari sintaktikodun hizkuntzetan–, argumentu akusatiboa edo datiboa ezkutuan egon daitezke. Alabaina, datiboa ezkutuan dagoenean, elkarkari sintaktikoek soilik dute akusatiboa agerian agertzeko aukera; elkarkari lexikoetan, aldiz, datiboa ezkutuan egonez gero akusatiboak ere hala egon behar du egitura gramatikala izan dadin.

Euskaraz, hasteko, argumentu akusatiboaz baino argumentu absolutiboaz hitz egin behar dugu, osagarri zuzena kasu horrekin markatzen baita euskaraz, Siloniren (2012) lagineko hizkuntzak ez bezala euskara hizkuntza ergatiboa (Dixon 1979; Comrie 2013) delako. Zehar osagarria, berriz, datiboz markatzen da euskaraz ere.

Euskarazko elkarkari lexikoetan ere, argumentu datiboa ezabatuz gero, absolutiboz markatutako osagarri zuzena agerian egotea ez da posible (39), anafora agerian duen elkarkari iragankor baten bidez ez bada:

- (39) a. Miren eta Ane telefonoz (\*berria) komunikatu dira.  
b. Miren eta Ane (\*lepoa) musukatu dira.
- (40) Miren eta Ane apunteak pasatu dira.

Dena den, elkarkari sintaktikoetan ere antzekoa gertatzen da euskaraz. §2.2. atalean erakutsi dudana bezala, kanonikoki ez daude onartuta (40) bezalako egiturak, hots, zeharkako elkarkari iragangaitzak. Egitura hauetan, elkarkaritua zehar osagarria da eta hutsik dago, egitura iragangaitza denez ez baita anafora baten bidez gauzatzen. Orduan,

absolutiboz markatutako subjektua eta kasu marka bera duen osagarri zuzena agerian geratzen dira.

Perpauk hauek hiztun gehienentzat ez dira gramatikalak, euskarak elkarkari sintaktikoak edukiz gero esperoko genukeenaren aurka. Alabaina, hiztun gutxi batzuentzat onargarriak dira, eta are gehiago, ekoitzi ere ekoizten dira noizbehinka (Albizu 2001: 79–80; Bilbao, Berro eta Fernández argitaratzeak: 9–10). Horren erakusgarri dira (20b) eta (21b)n bildutako adibideak.

Horrez gain, baliteke jokabide hau euskararen ezaugarri idiosinkratikoen ondoriozkoa izatea, elkarkari motaren ondoriozkoa baino gehiago. Albizuk (2001) ohartarazten duenez, euskaraz *izan* aditz laguntzaile iragangaitzak ez du absolutibo komunztadura bi (egilearena eta gaiarena) edukitzeko aukerarik.<sup>31</sup>

Hala, Silonik (2012) adibidetzat dituen hizkuntzak —gaztelania eta frantsesa— ez bezalakoa da euskara bi alderditan. Batetik, hizkuntza hauek nominatibo-akusatiboak direnez, subjektua nominatiboz markatzen da eta osagarria akusatiboz (Dixon 1979; Comrie 2013). Bestetik, aditz laguntzaileak subjektu komunztadura baino ez du hizkuntza hauetan. Gainera, egungo gaztelaniak ez du aditz laguntzailearen txandakatzerik, frantsesak ez bezala.

Honen guztiaren ondorioz, bi hizkuntza hauetan ez dago murriztapen morfologikorik nominatiboz markatutako argumentua eta akusatiboz markatutakoa agerian egon daitezen. Izan ere, aditz laguntzaileak kasu bakarrarekin, subjektuarekin baino ez du komunztadura egiten. Gainera, bi argumentuekiko komunztadura balute ere, subjektuaren eta osagarriaren kasuak desberdinak lirateke. Horregatik, hizkuntza hauetan ez dago arazo morfologikorik, ez dutelako kasu bereko argumentu bi inflexioan komunztadura egin behar dutenak.

### 3.2.2. Ezohiko Kasu Markapena

Siloniren (2012: 291) arabera, elkarkariak sintaxian sortzen dituzten hizkuntzetan soilik onartzen dira elkarkari iragangaitzak Ezohiko Kasu Markatzea<sup>32</sup> (Arteatx 2011) duten aditzekin.

Ezohiko Kasu Markapena infinitibozko perpauk batzuetako subjektuan gertatzen da hizkuntza batzuetan, hala nola ingelesa (41a) edo gaztelania (42b). Egitura hauetan,

---

<sup>31</sup> Elkarkari lexikoek ere osagarri zuzena agerian egoteko ezintasuna murriztapen berberaren ondorio izan liteke. Edonola ere, elkarkari sintaktikoetan ez bezala, elkarkari lexikoetan ez dut (20b) eta (21b)koak bezalako kontra-adibiderik aurkitu.

<sup>32</sup> Artiagoitiak (2000: 163) *Kasu Ezartze Berezia* deitura darabil.

infinitibozko perpauseko subjektua osagarriari dagokion kasuaz markatzen da, hots, akusatiboaz (Artiagoitia 2000: 163).

- (41) a. She is a wonderful person.  
‘Bera pertsona zoragarria da.’  
b. I believe her to be a wonderful person.  
‘Bera pertsona zoragarria izatea uste dut.’ (hitzez hitz) (Artiagoitia 2000: 163)

- (42) a. Ella canta.  
‘Berak kantatzen du.’  
b. Pedro la ve cantar.  
‘Pedrok bera kantatzen ikusten du.’

Adibide hauetan, *believe* (41b) eta *ve* (42b) aditzek menpeko perpausak hartzen dituzte euren osagarritzat. Menpeko perpaus horietako *to be* eta *cantar* aditz infinitiboen subjektuek, hots, *her* eta *la*, hurrenez hurren, ezohiko kasu markapena dute. Izan ere, biak ala biak akusatibo kasuaz markatutako izenordainak dira, menpeko perpausaren kanpo argumentu izan arren. Bai ingelesa bai frantsesa hizkuntza nominatibo-akusatiboak izanik, subjektu guztiak nominatiboz markatu ohi dira eta osagarriak, berriz, akusatiboz (Dixon 1979; Comrie 2013). Hain zuzen ere, *to be* (41a) eta *cantar* (42a) aditzak infinitibozko menpeko perpausetik kanpo ageri direnean, jokaturik alegia, euren subjektuek nominatiboz markatutako izenordainak hartzen dituzte, *she* eta *ella* hurrenez hurren.

Arteatxek (2007: 32) euskaraz *Oharmen-aditzen Osagarriekin* (ing. *Perception Verb Complement*) antzekoa gertatzen dela antzeman du, osagarri hauek *-ten* morfemadun egitura jokatu gabeak direnean:

- (43) a. Mirenek pianoa jo du.  
b. Jonek [Miren pianoa jotzen] ikusi du.  
c. \*Jonek [Mirenek pianoa jotzen] ikusi du

(43a)ko subjektua, hots, *Miren*, *-k* ergatibo kasuaz markatuta dago, perpausa iragankorra baita. Alabaina, perpaus bera oharmen-aditz baten osagarri jokatu gabe bihurtuz gero (43b), *Miren* absolutiboz markatuta ageri da, nahiz eta bere egile errola *jo* aditzetik hartu eta honen kanpo argumentua izan. Hori dela eta, honelako egituretako kasu markapena ezohikoa da. Are gehiago, ezinezkoa da menpeko perpauseko subjektua ergatiboz markatzea (43c) (Arteatx 2011: 57).<sup>33</sup>

<sup>33</sup> Salbuespena dira aditzaren aurretik agertzen diren izenordain indartuak, *bakarrik* esanahia dutenak: *Sua zeuk egiten ikusi zaitut*. Honetaz, ikus Arteatx (2007, 2011).



Orain arte, *ikusi* oharmen-aditzak elkarkariak syntaxian sortzen dituela defendatu dut. Hori hala balitz, Siloniren (2012: 291–292) arabera espero izatekoa da perpaus jokatugabe bat osagarritzat hartuta ere, aditz honek elkarkari iragangaitza osatu ahal izatea, Ezohiko Kasu Markapena izan arren. Eta hala da:<sup>34</sup>

(44) Miren eta Jon pianoa jotzen ikusi dira.

*Miren eta Jon* DSa, absolutiboz markatutako subjektua, aldi berean *ikusi* aditzaren esperimentatzaile eta gaia da, eta beraz, egitura elkarkaria da. Horrez gain, DS bera *jo* menpeko aditzaren egile ere bada. Hala ere, *jo* aditzaren kanpo argumentu izanik, absolutiboz markatuta dago, Ezohiko Kasu Markapena du beraz.

Siloniren (2012) arabera, Ezohiko Kasu Markapena duten egiturak elkarkari bihurtzeko prozesuan bi aditzen errolek eragiten dute, eta horregatik, egitura hauek syntaxian soilik sor daitezke, bi aditzen arteko erlaziorik ez baitago lexikoan.

### 3.2.3. Aditz-izenak

Bestalde, aditz-izenek eta egitura nominalizatuak aurkako banaketa erakusten dute: aditz-izenak elkarkari bihurtzea posible da elkarkari lexikoetan, ez ordea elkarkari sintaktikoetan (Siloni 2012: 295–296).

Euskaraz ere, badirudi oro har aditz-izena duten egiturek ez dutela esanahi elkarkaria hartzen (45), predikatu alelikoen bidez sortuak ez badira (46):

- (45) a. \*Miren eta Ane ikustea hunkigarria izan da  
(Irakurketa: \*elkarkari gisa, ✓ iragankor gisa.)
- b. \*Miren eta Ane ezagutzea hunkigarria izan da  
(Irakurketa: \*elkarkari gisa, ✓ iragankor gisa.)
- (46) a. Miren eta Ane elkartzea hunkigarria izan da.
- b. Miren eta Ane ezkontzea hunkigarria izan da.

---

<sup>34</sup> Etxepare eta Uribe-Etxebarriak (2011: 311–312) bihurkarietarako aurkakoa proposatzen dute, \**Jon kantatzen entzun da grabazio horretan ez-gramatikaltzat hartuz*, eta ondorioz, euskarazko iragangaitza lexikoan gertatzen dela argudiatuz. Nire ustez, halako esaldien onargarritasunaz gehiago jakin beharko litzateke. Izan ere, badirudi hiztun batzuek behintzat gero eta aditz gehiagorekin, gero eta egitura gehiagotan onartzen dituztela bihurkari (eta elkarkari) iragangaitzak (Bilbao, Berro eta Fernández argitaratzeak), eta esango nuke egitura hauen kasua halakoxea dela. Dena den, egitura hauen onargarritasuna ez bide da hiztun guztientzat bera, eta elkarkaritutako aditzaren arabera ere alda daiteke hiztunen jizkua: *ikusi* aditzarekin elkarkari iragangaitzak ohikoagoa dira ziurrenik *entzun* edo *harrapatu* aditzekin baino, eta ondorioz, *Haiek pianoa jotzen ikusi dira* onargarriago *Haiek kantatzen entzun dira* edo *Haiek kopiatzen harrapatu dira* baino.

(45)en kideko elkarkariak sortzeko anaforadun egitura perifrastikoetara jo behar dugu euskaraz.

Silonik (2012) azaltzen duenez, hizkuntza batean nominalizazioa eta elkarkari bihurtzea biak prozesu lexikoak badira, aditz-izenarekin osatutako perpausek esanahi elkarkaria har dezakete. Aldiz, elkarkari sintaktikoak syntaxian sortzen direnez, ez dute esanahi elkarkaria duen sarrera lexikorik, eta ondorioz, nominalizazioa ezin da esanahi elkarkaria duen aditzean gertatu. Horregatik, nominalizatu daitekeen bakarria aditz iragankorra da, lexikoan zerrendatua dagoena eta iragangaizten den elkarkariaren oinarrian dagoena.

### 3.2.4. Elkarkari etenak

Azkenik, elkarkari lexikoak dituzten hizkuntzek elkarkari eten (Dimitriadis 2004) deritzen egitura elkarkariak onartzen dituzte (Siloni 2012: 297; Bilbao, Berro & Fernández argitaratzeaz). *Elkarkari bakunetan* (ing. *simple reciprocals*) (Dimitriadis 2004), hots, etenak ez direnetan, subjektuak plurala izan behar du eta subjektuko kideen artean gauzatzen da harreman simetrikoa: adibidez, (47a)n, *Miren* eta *Aneren* artean. Elkarkari etenetan (47b), ordea, elkarrekiko harremana subjektuaren eta PS komitatibo baten artean gauzatzen da:

- (47) a. *Miren* eta *Ane* elkartu dira.  
b. *Miren* *Anerekin* elkartu da.

Gainerako egitura elkarkarietan ez bezala, elkarkari etenetako subjektua ez da nahitaez plurala izan behar, singularra ere izan daiteke, (47b)ko *Miren* kasurako. Subjektuarekin harremanetan, gizaki bat adierazten duen PS komitatibo bat agertzen da;<sup>35</sup> (47b) adibidean, *Anerekin* da PSa, *-rekin* postposizio komitatiboa buru duena. Egitura hauek ere esanahi elkarkaria dute, baina elkarrekikotasuna ez da subjektuko kideen artekoa, elkarkari bakunetan bezala, ez bada subjektuko entitate(ar)en eta PSak adierazten duenaren artekoa. Beraz, bi entitateak ez dira argumentu bakarrean gauzatzen, elkarkari bakunetan bezala, ez bada bi argumentutan.

---

<sup>35</sup> PSak adierazten duen entitateak gizakia izan behar du, borondatea izatea beharrezkoa delako esanahi elkarkaria erdiesteko. Adibidez, *Miren Anerekin jo da* perpausak elkarrekiko harremana adierazten du subjektuaren eta PSren artean, ez ordea *Kotxea hormarekin jo da* perpausak.

Subjektuaren eta PSaren arteko harreman elkarkaria guztiz simetrikoa denez, bata bestearekin alderantzizkatuz gero ere, esanahia ez da aldatzen. Hala, (48a) eta (48b) perpausek esanahi bera dute.

- (48) a. Miren Anerekin elkartu da.  
b. Ane Mirenekin elkartu da.

Aditz komunztadurari dagokienez, elkarkari etenetan aditzak subjektu sintaktikoarekin soilik egiten du komunztadura (Dimitriadis 2004: 1). (48)ko adibideetan, aditz laguntzailea *izan* da, iragangaitza, eta komunztadura absolutibo singularra erakusten du absolutiboz markatutako subjektuarekin.

Haspelmathek (2007: 2105) aipatzen duen bezala, PS isildu egin daiteke, eta orduan, interpretazio orokorra hartzen du:

- (49) Miren bostetan elkartu da (norbaitekin).

Gainera, subjektua plurala izanik PS isilduz gero, elkarkari etenaren eta elkarkari bakunaren artean anbiguetatea sortzen da (Haspelmath 2007):

- (50) Miren eta Ane bostetan elkartu dira (norbaitekin).

Horrela, (50)eko adibideak bi irakurketa ditu PS isilduz gero. Batetik, Miren eta Aneren arteko hitzordua adierazi dezake; bestetik, posible da Miren eta Ane hirugarren pertsona batekin geratu izana ere, inplizitu geratzen dena.

Bestalde, elkarkari etenekin nolabaiteko lotura duten *kunzadura komitatibodun* egiturak aurkitu ditzakegu hainbat hizkuntza eslaviarretan, baita katalanez edo gaztelaniaren aldaera batzuetan ere (eztabaidarako, ikus Bilbao, Berro eta Fernández argitaratzeak, aipamenekin batera).

- (51) Con mi mujer nos casamos en abril. (Mare 2016: 275)  
'Nire emaztearekin apirilean ezkondu ginen.' (hitzez hitz)

Egitura hauetan, elkarkari etenetan ez bezala, subjektuak eta PSak batera komunztadura plurala eragiten du aditzean. (51)n, lehenengo pertsona singularreko subjektu inplizituaren eta *con mi mujer* preposizio sintagma komitatiboaren baturak eragiten du komunztadura plurala aditzean. Hortik abiatuta, komunztadura subjektuak ez ezik sintagma komitatiboak ere eragiten duenez, biak aditzaren argumentutzat hartzen dira.

Ildo beretik, Dimitriadisek (2004: 27) eta Silonik (2012: 307) proposatzen dute elkarkari etenetan ere sintagma komitatiboak ez duela ohiko PS adjunktuen estatus bera, hots, egitura etenetako PSak argumentuak direla, komunztadura komitatiboko egituretan bezala. Aldiz, Marek (2016: 278) aurkako proposamena egin du gaztelaniarako, elkarkari etenetako PSak adjuntuak direla alegia.<sup>36</sup>

Elkarkari etenak hebraieraz, grezieraz, alemanez, hungarieraz, errusieraz, polonieraz, serbieraz, japonieraz eta swahiliera edo erruanderaz aurki daitezke, bestek beste; ez, ordea, frantsesez (52) edo italieraz (53) (Dimitriadis 2004: 2):

(52) \*Il s'est embrassé avec Dina  
'Bera Dinarekin besarkatu da.'

(53) \*Giovanni si è abbracciato con Maria  
'Giovanni Mariarekin besarkatu da.'

Dimitriadisen (2004: 3) eta Siloniren (2012: 297–298) arabera, elkarkari etenak aditz simetrikoekin soilik eratu daitezke, non ebentuan parte hartzen duten entitateek –subjektuak eta PSak adierazten dituztenak– parte hartze berbera duten. Hain zuzen ere, horrelakoak dira predikatu alelikoak, hau da, elkarkari lexikoak sortzen dituzten aditzak. Horregatik, Silonik (2012) aurreikusten du Hiztegiaren edo Sintaxiaren parametroaren arabera egitura elkarkariak lexikoan sortzen dituzten hizkuntzetan soilik izatea onargarriak elkarkari etenak.

Hala ere, aurreikuspen hau ez da guztiz betetzen. Izan ere, Silonik (2012: 300) antzeman duen bezala, elkarkariak sintaxian sortzen dituzten hizkuntza batzuetan ere aurki daitezke elkarkari etenak. Horren adibide dugu, esaterako, gaztelania. Siloniren (2012) sailkapenaren arabera, *SE* klitikoaren (gaztelaniazko elkarkarietarako, Peregrín Otero 2012; bestelako *SE* egituretarako, Mendikoetxea 1999, 2012) bidez sortzen diren gaztelaniazko elkarkariak –baita gainerako erromantzeetakoak ere (Zribi-Hertz 1982, 2008) – sintaxian sortzen dira. Hori hala izanik, ez dira espero izatekoak Marek (2016: 270) gaztelaniaz aztertutako elkarkari etenak,<sup>37</sup> subjektu singular baten eta *con* preposiziodun sintagma komitatibo baten bidez eraikiak:

(54) a. Juan se miró con su hermano y se empezaron a reír.  
'Juan bere anaiarekin begiratu zen eta barreka hasi ziren.'

<sup>36</sup> Lan honen mugak direla medio, ezingo dut hemen euskarazko elkarkari etenetako PSen azterketa xehe bat eskaini.

<sup>37</sup> Marek (2016) gaztelaniaz *recíprocos discontinuos* izendatu ditu.

- b. Ana se reconcilió con Ramón.  
‘Ana Ramonekin adiskidetu zen.’
- c. Me abracé con Esteban después de una larga charla.  
‘Estebanekin besarkatu nintzen elkarriketa luze baten ondoren.’

Dimitriadisek (2004: 2) bezala, Silonik (2012: 300) ere erromantzeetan aurki daitezkeen elkarkari etenak kasu bakartuak direla dio. Salbuespen bakartu hauen azalpena honakoa da: elkarkariak syntaxian sortzen dituzten hizkuntzetan badaude elkarkari lexikoak sortzen dituzten predikatu alelikoak ere (Siloni 2012). Hain zuzen ere, aditz horiekin soilik dira posible elkarkari etenak gaztelania bezalako hizkuntzetan, hots, Hiztegiaren edo Sintaxiaren parametroaren arabera elkarkariak syntaxian sortzen dituzten hizkuntzetan. Nire hipotesiaren arabera, hau litzateke euskararen kasua ere.

Beraz, elkarkari sintaktikoak dituzten hizkuntzek ere elkarkari etenak onartzen dituzte, baina predikatu alelikoekin soilik. Silonik (2012: 303) dioenez, elkarkari sintaktikodun hizkuntzek dituzten predikatu aleliko kopurua hizkuntza bakoitzaren araberrakoa da, idiosinkrasikoa alegia. Aldiz, elkarkariak lexikoan sortzen dituzten hizkuntzetan, ez da inoiz elkarkari sintaktikorik egongo. Izan ere, syntaxian elkarkariak sortzeko prozesua konputazionala eta emankorra da nahitaez (§3.1.1.); lexikoan, aldiz, lexikalizatutako irregulartasunak zerrendatzea posible da.

Hala, elkarkari sintaktikoak dituzten hizkuntzetan elkarkari etenak onartzen dituzten predikatu alelikoek, elkarkari lexikoak dituzten hizkuntzetako ezaugarri berberak dituzte, aldaketa semantikoa kasu. Beraz, elkarkari etenak elkarkari lexikoak dituzten hizkuntzetan soilik agertzen ez diren arren, lexikoki elkarkariak diren predikatuekin –predikatu alelikoekin– soilik sortzen direla orokortu daiteke.

Euskaraz, (47b) bezalako elkarkari etenak daude. Euskarazko elkarkari etenak ere lexikoki elkarkariak diren aditzekin eratuta daude, mota horretako aditzen ezaugarriak –(§3.1.) atalean erakutsi ditudanak– baitituzte. Hain zuzen ere, aipatutako hainbat predikatu alelikok sor ditzakete elkarkari etenak, hala nola:

- |      |                                      |   |
|------|--------------------------------------|---|
| (55) | a. Miren Anerekin ezkondu da.        | (cf. Miren eta Ane ezkondu dira)        |
|      | b. Miren Anerekin batzartu da.       | (cf. Miren eta Ane batzartu dira)       |
|      | c. Miren Anerekin komunikatu da.     | (cf. Miren eta Ane komunikatu dira)     |
|      | d. Miren Anerekin geratu/gelditu da. | (cf. Miren eta Ane geratu/gelditu dira) |

Hortaz, euskaraz ere egitura elkarkari etenak sortzen dituzten predikatuak lexikoki elkarkariak dira eta horrelako predikatuetan espero ditugun ezaugarriak dituzte. Esaterako, aldaketa semantikoaren adibidetzat eman dugun *ezkondu* aditzak, irudizko adiera horretan egitura etena baino ez du onartzen, (37)an erakutsi dugun bezala. Hemen irudizko adiera horren beste adibide bat (56):

- (56) a. Amak ondo ezkontzen diren baldosa modelo ezberdinak eramaten ditu. (Eider Rodriguez, *Eraikuntzarako materiala*, 44.orr.)  
b. \*Amak ondo ezkontzen dituen baldosa modelo ezberdinak eramaten ditu

Dena den, predikatu alelikoak ez diren beste zenbait aditzekin ere elkarkari etenak entzun daitezke (57). Aurreko adibideetako aditzekin alderatuta, *eraman* eta *ikusi* aditzek ez dituzte elkarkari lexikoak sortzen, ez baitute egoera simetriko eta atomiko bat adierazten:

- (57) a. Miren Anerekin oso ondo eramaten da.  
b. Miren Anerekin ikusten da, baina bere amak ez daki ezer.

Horregatik, aditz hauekin sortutako elkarkari etenek Siloniren (2012) orokorpenaren aurkako adibideak dirudite, bere proposamenaren arabera predikatu alelikoek soilik eratzen baitituzte elkarkari etenak. Alabaina, Silonik (2012: 301) elkarkari sintaktikoak dituzten hizkuntza batzuetan, hala nola frantsesez, txekieraraz edo errumanieraz, erakutsi du aditz berberak bi sarrera homofono izan ditzakeela lexikoan: batetik, interpretazio simetrikoa, hots, elkarkaria duena; bestetik, irakurketa ez-elkarkaria duena. Lehenak elkarkari lexikoak sor litzake; bigarrenak, aldiz, elkarkari sintaktikoak bakarrik osa litzake, eratorpen sintaktikoaren ostean.

Euskaraz kasu bera dugu. Izan ere, (57a) adibidean, *eraman* aditzak ‘harreman ona izan’ adiera hartzen du, eta ez ‘zerbait edo norbait aldean hartuta joan’ oinarrizko adiera. §3.1.3. atalean azaldu bezala, horrelako aldaketa semantikoak predikatu alelikoetan soilik gerta daitezke, eta horiek berak dira, hain zuzen ere, elkarkari etenak onartzen dituzten aditzak. Beraz, (57a)ko *eraman* aditzak aldaketa semantikoa jasan duenez, lexikoki elkarkaria den predikatua da. Orobat, (57b)ko *ikusi* aditzak ez du ‘begien bidez hauteman’ adiera, ‘zita bat izan’ adiera baino.<sup>38</sup> Hortaz, (57)k elkarkari etenetan ezinezkoa da *eraman*

---

<sup>38</sup> Txekieraz ere antzera gertatzen da (Siloni 2012: 302). Elkarkari etenetan ageri denean, *vidět* ‘ikusi’ aditzak ‘elkartu’ esanahia hartzen du nagusiki eta ez egitura bakunetan duen ‘bata bestea ikusi’ adiera.

edo *ikusi* oinarrizko irakurketan ulertzea, ez bada adiera berrian. Ondorioz, aditz horiek lexikoan bina sarrera izan behar dituzte, adiera berriak lexikoan zerrendatuta egon ahal izateko.

Aldaketa semantikoaz gain, elkarkari lexikoez berezko duten beste ezaugarri bat dute *eraman* eta *ikusi* aditzek (57)eko adieretan: ezin dira azpi-ebentutan banatu, ezinbestean ebentu atomiko eta singular bat adierazten dute. Ondorioz, adiera berri hau dutenean, ezin dira bi azpi-ebentutan dekonposatu. Esaterako, *Miren eta Ane ondo eramaten dira* ezin da *Mirenek Ane ondo eramaten du* eta *Anek Miren ondo eramaten du* perpausekin parafraseatu.

Beraz, Siloniren (2012: 301) bidetik, euskaraz ere aditz lexiko eta sintaktikoen artean anbiguoak diren *ikusi* bezalako aditzak egon daitezkeela proposatzen dut. Aditz honen oinarrizko irakurketa, hots, egitura iragankorretan duena, ‘begien bidez hauteman’ da (58a); egitura iragangaiztean, syntaxian gertatzen den elkarkaritze prozesu baten bidez, anaforarik gabe elkarrekiko harremana adieraz dezake (58b).

- (58) a. Mirenek eta Anek elkar ikusi dute.  
b. Miren eta Ane ikusi dira.  
c. Miren Anerekin ikusi da.

Horrez gain, egitura iragangaitz berak ‘zita bat izan’ adiera har dezake. Aldaketa semantiko hau lexikoki elkarkaria den *ikusi* aditzak jasan du, aurrekoaren homofonoa dena (58c). Siloniren (2012) aurreikuspena beteaz, elkarkari etena predikatu alelikoek soilik eratu dezakete, eta ondorioz, adiera berria da elkarkari etenean *ikusik* duen irakurketa bakarra.

Hainbat elkarkari eten bildu ahal izan ditut, bai ahoz zein idatziz, baina ez dirudi guztiek horren azalpen argia dutenik. Esaterako, Kepa Enbeita *Urretxindorraren* “Ene jaiotetxe maitea!” bertsoan bi elkarkari eten ageri dira, *besarkatu* (59a) eta *laztandu* (59b) aditzekin, gaur egun egitura etenetan entzun ohi ez direnak:

- (59) a. Ni besarkatu ez nadin, baña, / Or neure sendi laztanaz,<sup>39</sup> / (Kepa Enbeita *Urretxindorra*, 1936)  
b. Zeukin laztanduko dala Kepa. (Kepa Enbeita *Urretxindorra*, 1936)

---

<sup>39</sup> -az instrumentalaren erabilera sozietatiboa egiten du.

Gainera, badirudi *Urretxindorrarengan* elkarkari etenak ez ezik elkarkari iragangaitzak (60a) eta elkarkari mistoak (60b) ere gramatikalak direla:

- (60) a. Maite geranok... Urtzi-Besotan / Or laztanduko al gara. (Kepa Enbeita *Urretxindorra, Euzkadi*, 1933)  
b. Laztandu giñan alkar Kepa eta Sabin. (Kepa Enbeita *Urretxindorra, Euzkadi*, 1913)

Urretxindorrak elkarkari etenetan (59) darabiltzanez, pentsa genezake *laztandu* eta *besarkatu* Siloniren (2012) hipotesiaren barruan elkarkari lexikoak sortzen dituzten aditzak direla. Alabaina, horiek ez bezala, *elkar* anaforadun elkarkari iragankorra onartzen dute eta horixe da euren forma kanonikoa (61); gainera, bi azpi ebentutan banatzea posible da (62).

- (61) a. Anek eta Mirenek elkar besarkatu dute.  
b. Anek eta Mirenek elkar laztandu dute.
- (62) a. Anek Miren besarkatu du. Mirenek Ane besarkatu du. = Miren eta Ane besarkatu dira.  
b. Anek Miren laztandu du. Mirenek Ane laztandu du. = Miren eta Ane laztandu dira.

Beraz, alde horretatik *ikusi* aditzaren jokabidera hurbiltzen dira. *Laztandu* eta *besarkatu* aditzen kasuan, ordea, ez dirudi *ikusi* aditzak bezala bi adiera desberdin daudenik. Arazo bera erakusten dute *aurkitu topatu* eta *begiratu* aditzek:

- (63) a. Miren Anerekin aurkitu/topatu da.<sup>40</sup> (Bilbao, Berro eta Fernández argitaratzeaz)  
b. Irakasleak azterketa banatu zuenean, klasekidearekin begiratu nintzen. (I.L., 2021/06/07)

Aditz hauek ere elkarkari etenak sortzen dituzten arren (63), *elkar* anafora elkarkariarekin ager daitezke. Esate baterako, *Mirenek eta Anek kalean elkar aurkitu dute* esan dezakegu, elkarkari lexikoak sortzen dituzten predikatu alelikoekin ez bezala (*\*Mirenek eta Anek elkar elkartu dute*). Gainera, adierazten duten ebentua bi

---

<sup>40</sup> Adibide honetan, gainera, PS isilduz gero irakurketa bihurkaria ere izan dezake perpausak: *Miren aurkitu/topatu da*. Mareren (2016: 274) arabera, elkarkari etenetan PS isildu eta subjektu singularra soilik geratzen denean, ohikoa da interpretazio bihurkaria hartzea. Hori bera gertatzen da *ikusi* aditzarekin ere: *Miren ikusi da* perpausak interpretazio bihurkaria du. Alabaina, predikatu alelikoekin sortutako elkarkari etenetan ez da inoiz halakorik gertatzen, berezko interpretazio elkarkariari eusten baitaio: *Miren eta Ane elkartu dira* (norbaitekin).



azpi-ebentutan bana daiteke linguistikoki, elkarkari sintaktikoetan bezala: *Mirenek Ane aurkitu du* eta *Anek Miren aurkitu du* perpausekin *Miren eta Ane aurkitu dira* perpausaren esanahi bera lortzen baita. Beraz, nahiz eta elkarkari etenak sortu, badirudi aditz hauek ez dituztela Siloniren (2012) hipotesiaren aurreikuspenak guztiz betetzen.

### 3.3. Tarteko ondorioak

Elkarkari iragangaitzak	Elkarkari lexikoak	Elkarkari sintaktikoak
Aditz simetrikoak	✓	✗
Emankorrak	✗	✓
Sarrera izoztuak	✓	✗
Aldaketa semantikoa eta lokuzioak	✓	✗
ABS kasua agerian eta DAT ezkutuan	✗	✓
Ezohiko Kasu Markapena	✗	✓
Aditz-izenak	✗	✓
Elkarkari etenak	✓	✗

2. taula

Silonik (2012) elkarkari lexiko eta sintaktikoak bereizteko erabilitako ezaugarriak kontuan hartuz, badirudi euskaraz elkarkari iragangaitz asko sintaxian sortzen direla, hala nola *ikusi, ezagutu, maite izan, agurtu...* Beraz, Siloniren (2012) Hiztegiaren edo Sintaxiaren parametroan, euskara elkarkariak sintaxian sortzen dituen hizkuntza litzateke.

Hala ere, euskaraz elkarkari lexikoak ere badaudela erakutsi dut, *elkartu, batzartu, ezkondu, batu...* aditzekin sortzen direnak. Itxuraz honek Silonik (2012) proposatutako Hiztegiaren edo Sintaxiaren parametroaren aurkako ebidentzia dirudien arren, ez da hala. Izan ere, aditz hauek predikatu alelikoak dira, berez esanahi elkarkaria dutenak. Haspelmathen (2007) arabera, predikatu alelikoak hizkuntza guztietan aurki daitezke. Ildo beretik, Silonik (2012) bere lagineko hizkuntzetan antzeman zuen elkarkariak sintaxian sortzen dituzten hizkuntzetan elkarkari lexiko batzuk egon daitezkeela, ez ordea alderantziz. Hortaz, nire hipotesiaren arabera, hauxe litzateke euskararen kasua.

## 4. Elkarkaritzea

*Elkarkaritzea* (ing. *reciprocalization*) (Haspelmath 2007: 2093) elkarkaria ez den egitura bat egitura elkarkari bihurtzeko prozesuari deritzo. Euskarazko elkarkari iragangaitzak sortzeko prozesu horretan, elkarrekikotasun harremana duten bi entitateak subjektu gunean adierazten dira; osagarri gunean, berriz, ez dugu anafora elkarkaririk, elkarkari iragankorretan ez bezala.

Horren ondorioz, elkarkari iragangaitzek –bai lexikoeak bai sintaktikoeak– argumentu bakarra dute, subjektua alegia. Subjektu honek nahitaez entitate bat baino gehiago batzen ditu (elkarkari etenetan izan ezik) eta subjektuko entitateen artean elkarrekikotasun harremana dago; hala, perpausak esanahi elkarkaria du. Perpaus elkarkariak horrela interpretatzen dira, elkarkari iragangaitzetako argumentu bakarrak bi errol tematiko jasotzen dituelako.

Hau guztia kontuan izanik, elkarkari iragangaitzek arazo teoriko interesgarri bat dakarte, Ortiz de Urbinak (1986: 248–253) aspaldi arakatu zuena: argumentu bakarrak bi errol tematiko jasotzen baditu, *Theta Irizpidea* (Chomsky 1981) urratzen da. Izan ere, Theta Irizpidearen arabera, argumentu bakoitzak errol bat eta bakarra jaso dezake. Elkarkari iragankorretan, berriz, bi argumentu daude –subjektua eta osagarri gunean dagoen *elkar* anafora– eta Theta Irizpidea ez da urratzen.

Silonik (2012) auzi teoriko honentzat azalpen bat aurkitu du elkarkariak lexikoan sortzen dituzten hizkuntzetarako, eta beste bat elkarkariak syntaxian sortzen dituztenetarako. Siloniri (2012) jarraituz, euskaraz elkarkari iragangaitz asko sintaktikoak diren arren, beste hizkuntza batzuetan bezala elkarkari lexikoak ere badaudela erakutsi dut aurreko atalean (§3). Atal honetan, Siloniren (2012) proposamenak erabiliko ditut elkarkaritzea euskaraz nola gertatzen den azaltzeko, bai lexikoan (§4.1.) bai syntaxian (§4.2.).

### 4.1. Elkarkaritzea lexikoan: paketatzea

Elkarkari lexikoak predikatu alelikoeak sortzen dituztela azaldu dut. Aditz hauek lexikoki esanahi elkarkaria dutenez, lexikoan zehaztuta egon behar du mota honetako aditzen argumentuak bi errol tematiko jasoko dituela. Alabaina, ez da lexikoan ezartzen predikatu baten eta bere argumentuen arteko harremana, ez bada syntaxian. Izan ere, aditz batek ezin die bere argumentuei errolik ezarri lexikoan, eratorpen sintaktikoan baino.

Horregatik, lexikoan zehaztu ahal izateko argumentu berak bi errol tematiko jasoko dituela eratorpen sintaktikoaren ostean, Reinhart eta Silonik (2005) errol konplexu bat proposatzen dute, bi errol tematikoz osatua. Errol tematiko konplexua sortzeko prozesuari paketatzea deritzate.

Paketatzearen bidez, Silonik (2012: 280) elkarkari lexikoak nola sortzen diren azaldu du. Egile honek aztertutako hizkuntzetan, aditz iragankor batek akusatibo kasua ezartzeko gaitasuna galduko luke lexikoan. Ondorioz, oinarrizko aditz iragankorraren<sup>41</sup> kideko sarrera berri bat sortuko litzateke, argumentu bakarrekoa. Silonik (2012) aztertutako hizkuntzak hizkuntza nominatibo-akusatiboak dira, eta horietan, akusatibo osagarriak hartu ohi duen kasua da. Hortaz, aditzak gordeko lukeen argumentu bakarra kanpo argumentua litzateke Silonik (2012) aztertutako hizkuntzetan, eta ondorioz, hizkuntza horietako elkarkari iragangaitzak inergatiboak direla proposatzen du.

Bestalde, paketatzearen bidez, sarrera berriko aditzak oinarrizko aditz iragankorraren bi errol tematikoak errol konplexu batean bilduko lituzke. Horrela sortuko lirateke lexikoki esanahi elkarkaria duten predikatu alelikoak. Ondoren, eratorpen sintaktikoan, predikatu alelikoak errol konplexua kanpo argumentuari esleituko lioke.

Euskaraz, aldiz, lexikoki elkarkariak diren aditzek ergatibo kasua ezartzeko gaitasuna galduko lukete. Izan ere, elkarkari iragangaitzetan absolutibo kasuaz markatutako subjektua da argumentu bakarra, eta komunztadura ere absolutiboa du. Beraz, badirudi euskarazko elkarkari lexikoek ezarri ezin duten kasua subjektu iragankorrek jaso ohi duena dela, Siloniren (2012) lagineko hizkuntzetan ez bezala.

Adibidez, *ezkondu* aditzak adiera iragankorra du, elkarkaria ez dena, *Herriko apaizak Miren ezkondu du* perpausean bezala. Kasu honetan, egile errola du *herriko apaizak* subjektuak, eta gaia errola *Miren* osagarriak. Alabaina, aditz honen kideko aditz iragangaitzak esanahi elkarkaria du eta ebentu atomiko bat adierazten du (64):

(64) Miren eta Ane ezkondu dira.

(64)ko argumentu bakarrak, *Miren eta Ane* DSak, absolutibo kasu eta komunztadura du, aditzak ergatibo kasua ezartzeko gaitasuna gaitzearen ondorioz. Gainera, aditzak egile-gai errol konplexua du, argumentu bakar honi esleitzen diona, eta perpausak esanahi elkarkaria hartzen du.

---

<sup>41</sup> §3.1.3 atalean azaldu dudana bezala, oinarrizko sarrera iragankorra ez da beti existitzen, eta hala ez denean, Silonik (2012) sarrera izoztuak direla proposatzen du.

## 4.2. Elkarkaritzea syntaxian: esleipen parasitikoa

Elkarkari sintaktikoak, berriz, syntaxian sortzen dira (Siloni 2012: 284–285). Beraz, elkarkari sintaktikoetako aditzek ez dute lexikoan aldaketarik jasaten. Horregatik, elkarkari sintaktikoetako aditzek lexikoan oinarrizko aditz iragankorrek duen errol kopuru bera dute, hots, bi errol dituzte. Hain zuzen ere, elkarkari sintaktiko ondoren sortzen dira, eratorpen sintaktikoan.

Elkarkari sintaktikoetarako, elkarkari lexikoetarako ez bezala, Silonik (2012) ez du errol konplexurik ezta paketatzerik proposatzen. Horren ordez, elkarkariak syntaxian sortzen dituzten hizkuntzetan errolak parasitikoki esleitzen direla defendatzen du arazo teoriko honi azalpena emateko. Adibidez, hizkuntza erromantzeetan, *SE* klitikoaren hautu morfologikoak akusatibo kasua murrizten du eta argumentu bat gutxitzen da, egitura iragangaitza lortuz. Izan ere, hizkuntza hauetako *SE* klitikoa *iragangaiztaile* (ing. detransitivizer) bat da (Franco 1992: 123). Silonik ere (2012, §3) *SE* klitikoa osagarri klitikoa ez dela argudiatzen du, hainbat hizkuntzatako argudio morfosintaktikoen bidez.

Argumentu gutxitzearen ondorioz, gaia ezin zaio barne argumentuari esleitu. Ezarri ez den gai errola aditzak gordetzen du eta kanpo argumentuari esleitzen dio, honi kanonikoki dagokion egile errolarekin batera. Hortaz, elkarkari sintaktikoetan errolak parasitikoki esleitzen dira (Siloni 2012): akusatibo kasuaren murrizketaren eraginez, kanpo argumentuak gaia eta egile errolak jasotzen ditu aldi berean. Azalpen honetatik eratorzen den bezala, elkarkari sintaktikoak ere inergatiboak direla proposatzen du Silonik (2012), hau da, ageriko argumentua kanpo argumentua dela.<sup>42</sup>

Azalpen hau euskarara ekarriz, elkarkari sintaktikoetako aditzek lexikoan kideko iragankorrek bezainbeste errol dituzte, hots, bi errol. Alabaina, euskara hizkuntza erromantzeak ez bezalakoa izanik, prozesu sintaktikoa ez da guztiz berdin gauzatzen. Batetik, euskarak ez du *SE* bezalako klitiko iragangaiztailerik (Bilbao, Berro eta Fernández argitaratzeak). Horren ordez, euskaraz morfologia iragangaitzarekin antzeman daiteke egitura iragangaiztu dela: batetik, *izan* laguntzaile iragangaitza erakusten dute; bestetik, argumentu bakarra dago eta absolutibo kasu eta komunztadura du, perpaus inakusatiboek bezala.

---

<sup>42</sup> Silonik (2012) bere lanean aztertutako hizkuntzetan elkarkari iragangaitzak inergatiboak direla ondorioztatzen du hebraierazko, frantsesezko, italierazko eta errusierazko ebidentziak arakatuta (Siloni 2012, eranskina).

Bestalde, euskara tipologikoki hizkuntza ergatibo-absolutiboa da; Silonik (2012) aztertutako hizkuntza erromantzeak, aldiz, nominatibo-akusatiboak (Dixon 1979; Comrie 2013). Hori dela eta, euskaraz murrizten den kasua ez da akusatiboa, ez bada ergatiboa. Ergatiboa kanpo argumentuari esleitu ohi zaion kasua denez, hau murriztean aditzak bere bi errol tematikoak barne argumentuari esleitzen dizkio parasitikoki. Gero, barne argumentua Denbora Sintagmaren (DenbS) espezifikatzaile gunera mugituko litzateke, Islapen Hatsarrea bete ahal izateko, perpaus inakusatiboetan gertatzen den bezala.

Beraz, Siloniren (2012) azalpen formalak euskarara egokituta euskarazko elkarkari iragangaitzetako errolen esleipenarentzat azalpen bana ekarri dut: batetik, elkarkari lexikoetan, paketatzea; bestetik, elkarkari sintaktikoetan, errolen esleipen parasitikoa. Gainera, bi prozesuetan ergatibo kasua murrizten dela proposatu dut, hots, kanpo argumentuari dagokion kasua. Izan ere, euskarazko elkarkari iragangaitzen morfologiak eta aditz laguntzailearen hautaketak ergatibo kasua murriztu eta absolutiboa gordetzen dela pentsatzera garamatzate: alde batetik, bai kasu bai komunztadura absolutiboa erakusten dute; beste alde batetik, aditz laguntzaile iragangaitza ageri da, hots, *izan*, inakusatiboekin hautatzen dena, inergatiboek oro har hautatzen duten \**edun* iragankorraren orde. Ondorioz, elkarkari iragangaitzen morfologian oinarrituz behintzat, perpaus hauek inakusatiboak direla eta agerian dagoen argumentua barne argumentua dela dirudi.<sup>43</sup>

## 5. Ondorioak

Lan honetan, euskarazko elkarkari iragangaitzen azterketa xehea egin dut. Batetik erakutsi dut elkarkari iragangaitzek hainbat ezaugarri morfosintaktiko bereizgarri dituztela, hala nola, aditz trinkoekin agertu ezin izatea eta elkarkari zuzenetan soilik agertu ahal izatea. Dena den, elkarkari iragangaitzak gero eta egitura morfosintaktiko gehiagotan entzun daitezke, nagusiki lagunarteko hizkeran; esaterako, zeharkako elkarkari iragangaitzetan –*Miren eta Ane oparia eman dira*, adibidez– edo egitura mistoetan –*Miren eta Ane elkar ikusi dira*, esate baterako–.<sup>44</sup>

Bestetik, Siloniren (2012) banaketari jarraituz, euskarak Hiztegiaren edo Sintaxiaren parametroan zein balio hartzen duen aztertu dut. Horrela, euskaraz sintaxian

---

<sup>43</sup> Badirudi iragangaiztearen ondorioz kasu markatua (Dixon 1979) murrizten dela, bai euskara bezalako hizkuntza ergatibo-absolutiboetan bai Silonik (2012) arakatutako hizkuntza nominatibo-akusatiboetan.

<sup>44</sup> Aztertzeke geratzen den galdera teoriko interesgarria da ea nola azal daitezkeen hiztun batzuek onartzen dituzten zeharkako elkarkari iragangaitzak –*Miren eta Ane oparia eman dira*, adibidez– eta egitura mistoak –*Miren eta Ane elkar ikusi dira*, esate baterako–. Izan ere, horietan *oparia* eta *elkar* DSek ere barne argumentuak dirudite.

sortzen diren elkarkariak daudela erakutsi dut, *ikusi* aditzarekin sortzen direnak bezalakoak. Elkarkari sintaktikoei dagokien bezala, emankorrek dira, kideko aditz iragankorrean oinarritzen dira, Ezohiko Kasu Markapena duten egituretan ager daitezke eta baita aditz-izenekin ere.

Alabaina, Silonik (2012) elkarkariak syntaxian sortzen dituzten beste hizkuntza batzuetan antzeman bezala, euskaraz ere elkarkari gutxi batzuk lexikoan sortzen direla erakutsi dut. Elkarkari lexiko hauek predikatu alelikoekin sortzen dira, hau da, berezko esanahi elkarkaria dutenekin, hala nola *ezkondu*, *elkartu* edo *batzartu*. Aditz hauek ebentu singular eta atomikoak adierazten dituzte eta irakurketa kolektiboa soilik onartzen dute. Gainera, eremu semantiko hertsiko predikatuak izaten dira eta Hiztegiaren edo Syntaxiaren parametroan syntaxiaren balioa duten hizkuntzetan bezala, euskaraz ere aditz bakartu gutxi batzuk soilik daude. Aditz hauek elkarkari etenak deritzen egiturak onartzen dituzte, baita aldaketa semantikoa jasan ere, eta ondorioz, lokuzioetan ager daitezke.

Beraz, badirudi euskarak Hiztegiaren edo Syntaxiaren parametroan syntaxiaren balioa duten hizkuntzek bezala jokatzeko duela, hizkuntza erromantzeek bezala, esaterako. Gainera, euskaraz elkarkariak sortzeko prozesuak, bai lexikoan bai syntaxian, Silonik (2012) bere lagineko hizkuntzetarako proposatutako berberak izan daitezke. Elkarkari iragangaitzek, elkarkari iragankorrek ez bezala, bi errol tematiko jasotzen dituen argumentu bakarra dute. Alabaina, bi errolen esleipena Theta Irizpidea urratu gabe gertatzen da: batetik, elkarkari lexikoetan, paketatzea deritzon prozesuaren bidez; bestetik, elkarkari sintaktikoetan, errolak parasitikoki esleituz. Dena dela, Siloniren (2012) lagineko hizkuntzetan ez bezala, bai lexikoan bai syntaxian kanpo argumentuari dagokion ergatibo kasua murrizten dela eta bi errol tematikoak barne argumentuak jasotzen dituela proposatu dut, euskarazko elkarkari iragangaitzen morfologian oinarrituta.

### **Aipamenak**

- Albizu, Pablo. 2001. Sobre la distribución sintáctica de las formas finitas del verbo vasco: condicionamiento léxico y sintáctico. *ASJUren Gehigarriak* 35(1): 65–106.
- Arteatx, Iñigo. 2007. Euskarazko oharmen-aditzen osagarrietako perpaus jokatuabeak. *Uztaro* 63: 31–63.
- Arteatx, Iñigo. 2011. *Euskarazko egitura jokatuabeak: -t(z)en morfemadun perpaus osagarrien azterketa sintaktikoa*. Doktore Tesia, UPV/EHU.
- Artiagoitia, Xabier. 2000. *Hatsarreak eta parametroak lantzen*. Gasteiz: Arabako Foru Aldundia-UPV/EHU.

- Artiagoitia, Xabier. 2003. Reciprocal and reflexive constructions. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Berlin: de Gruyter. 607–630.
- Artiagoitia, Xabier. 2018. A tale of two reciprocal anaphors in Basque: preliminaries. *FLV* 126: 323–364.
- Berro, Ane, Beñat Oihartzabal & Beatriz Fernández. 2018. Inkoatibo/arazle alternantzia euskaraz erartortzen. In Beatriz Fernández & Ane Berro (arg.), *Euskaratik giza hizkuntzara. Jon Ortiz de Urbinari gorazarre. Fontes Linguae Vasconum* 126. Nafarroako Gobernua. 99–122.
- Berro, Ane, & Beatriz Fernández. 2019. (Euskal) Bozak: erdikoak, inkoatiboak eta arazleak. Itziar Laka (arg.) *Hitzak Sarean*. Bilbo: UPV/EHU. 47–64.
- Berro, Ane, Ane Odria & Beatriz Fernández. 2022. Person matters in impersonality. *Syntax* 25(1): 1–41.
- Bilbao, Kristina, Ane Berro & Beatriz Fernández. argitaratzeaz. Inkoatibo/arazleak, bihurkari eta elkarkariak eta beste (alegiako solasaldiak egitura iragangaiztuez). In Alexander Iribar & Irene Barberia (arg.) *Euskal Hizkuntzalaritzaren Lanak Jon Francoren Omenez*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Bilbao, Kristina. 2021. Bihurkaritasuna Bermeoko hizkeran: anaforak eta iragangaizteak. eskuizkribua, UPV/EHU.
- Chomsky, Noam. 1981. *Lectures on Government and Binding*. Dordrecht: Foris.
- Comrie, Bernard. 2013. Alignment of case marking of full noun phrases. In Matthew Dryer and Martin Haspelmath (arg.), *The World Atlas of Language Structures Online*. Leipzig: Max Planck Institute for Evolutionary Anthropology. [Interneten eskuragarri: <http://wals.info/chapter/98>, azken bisita: 2022-05-10].
- Dimitriadis, Alexis. 2004. *Discontinuous reciprocals*. eskuizkribua, Utrecht Institute of Linguistics OTS.
- Dixon, Robert M.W. 1979. Ergativity. *Language* 55(1): 59–138.
- Eberhard, David M., Gary F. Simons & Charles D. Fennig (arg.). 2022. *Ethnologue: Languages of the World*. 25. edizioa. Dallas, Texas: SIL International. [Interneten eskuragarri: <http://www.ethnologue.com>, azken bisita: 2022-05-19]
- Elosegi, Joxan, Koldo Izagirre & Josu Landa. c. 2021. *Euskal lokuzioak sarean*. Intza proiektua. [Interneten eskuragarri: <https://intza.armiarma.eus/>, azken bisita: 2022-05-19].
- Etxepare, Ricardo. 2003. Reflexives and reciprocals. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Berlin: de Gruyter. 380–385.
- Etxepare, Ricardo & Myriam Uribe-Etxebarria. 2012. Denominal Necessity Modals in Basque. In Urtzi Etxebarria, Ricardo Etxepare & Myriam Uribe-Etxebarria (arg.), *Noun Phrases and Nominalization in Basque: Syntax and Semantics*. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins. 283–329.

- Euskaltzaindia. 1985. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak* (EGLU) I. Iruñea: Euskaltzaindia.
- Evseeva, Natalia & Iker Salaberri. 2018. Grammaticalization of nouns meaning «head» into reflexive markers: a cross-linguistic study. *Linguistic Typology* 22(3): 385–435.
- Fernández, Beatriz & Ane Berro. 2021. Basque impersonals in comparison. *Linguistics. An Interdisciplinary Journal of the Language Sciences*. 1–63.
- Franco, Jon. 1992. Towards a Typology of Psych Verbs: Evidence from Spanish. *ASJUren Gehigarriak* 27. 119–134.
- Haspelmath, Martin. 2007. Further remarks on reciprocal constructions. In Vladimir P. Nedjalkov (arg.), *Reciprocal constructions*, 4. alea. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 2087–2115.
- Hualde, José Ignacio. 2003. Finite forms. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Berlin: de Gruyter. 205–242.
- Hualde, José Ignacio & Jon Ortiz de Urbina (2003). *A Grammar of Basque*. Berlin: de Gruyter.
- Huarte, Irati. 2022. *Euskal lokuzioen analisirako hastapenak (edo ezin dira lokuzioak aztertu gorriak ikusi gabe)*. Gradu Amaierako Lana, UPV/EHU.
- Mare, María. 2016. La reciprocidad discontinua en español. *Verba* 43: 269–297.
- McFadden, Thomas. 2007. Auxiliary selection. *Language and Linguistics Compass* 1(6): 674–708.
- Mendikoetxea, Amaya. 1999. Construcciones con *se*: medias, pasivas e impersonales. In Ignacio Bosque & Violeta Demonte (arg.), *Gramática descriptiva de la lengua española*. Vol. 2. Madrid: Espasa Calpe. 1631–1722.
- Mendikoetxea, Amaya. 2012. Passive and *se* constructions. In José Ignacio Hualde, Antxon Olarrea & Erin O'Rourke (arg.), *The handbook of Hispanic Linguistics*. Oxford: Blackwell Publishing. 477–502.
- Mitxelena, Luis. 1987–2005. *Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbo: Euskaltzaindia. [Interneten eskuragarri: [https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com\\_oehberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu](https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_oehberria&task=bilaketa&Itemid=413&lang=eu), azken bisita: 2022-05-19].
- Mounole, Céline. 2014 [2018]. *Le verbe basque ancien : étude philologique et diachronique*. [ASJU, 48]. Bilbo: UPV/EHU.
- Nunberg, Geoffrey, Ivan A. Sag & Thomas Wasow. 1994. Idioms. *Language* 70(3): 491–538.
- Ortiz de Urbina, Jon. 1986. Detransivization in AGR. In *Some parameters in the grammar of Basque*. Doktore Tesia, University of Illinois at Urbana-Champaign. 235–254.
- Ortiz de Urbina, Jon. 2003. Impersonal clauses. In José Ignacio Hualde & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *A Grammar of Basque*. Berlin: de Gruyter. 572–591.
- Osada, Toshiki. 2007. Reciprocals in Mundari. In Vladimir P. Nedjalkov (arg.), *Reciprocal constructions*, 4. alea. Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins. 2087–2115.



- Peregrín Otero, Carlos. 2012. Pronombres reflexivos y recíprocos. In Ignacio Bosque & Violeta Demonte (arg.), *Gramática descriptiva de la lengua española*. Vol. 2. Madrid: Espasa Calpe. 1427–1518.
- Rebuschi, Georges. 1988. Defining the three Binding Domains of Basque. *ASJU* 22(1): 233–241.
- Rebuschi, Georges. 1992. Absolute and Relativized Locality in the Binding Theory. In Joseba Lakarra & Jon Ortiz de Urbina (arg.), *Syntactic Theory and Basque Syntax*. 343–363. Donostia. (*ASJUren Gehigarriak* 27).
- Reinhart, Tania & Tal Siloni. 2005. The lexicon-syntax parameter: Reflexivization and other arity operations. *Linguistic Inquiry* 36: 389–436.
- Salaberri Izko, Iker. 2020. *Hebetic ioan gabe ene buruya: zenbait gogoeta buru hitzaren erabilera anaforikoen eta bihurkarien diakroniaz*. *FLV* 130: 445–469.
- Salaburu, Pello. 1986. La Teoría del ligamento en la lengua vasca. *ASJU* 20(2): 359–413.
- Siloni, Tal. 2012. Reciprocal verbs and symmetry. *Natural Language and Linguistic Theory* 30(1): 261–320.
- Urrutia, Aritz, Beñat Goitia & Xabier Artiagoitia. 2015. Zenbait ohar *bata bestea* anafora elkarkariaren inguruan. In Maria-José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg.), *Eridenen du zerzaz kontenta: sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947–2008)*. Bilbo: UPV/EHU. 617–643.
- Zribi-Hertz, Anne. 1982. La construction "se-moyen" du français et son statut dans le triangle: moyen-passif-réfléchi. *Lingvisticae Investigationes* VI(2): 345–401.
- Zribi-Hertz, Anne. 2008. Syntax at the interfaces: On the restricted productivity of the French mediopassive within the Romance family. *eskuizkribua*, Univ. Paris 8 / UMR 4023.
- Zuñiga, Fernando & Seppo Kittilä. 2019. The Affected Subject: Reflexives, Reciprocals, and Middles. In *Grammatical voice*. Cambridge: Cambridge University Press. 151–175.

### **Adibideetako aipamenak**

- Iturzaeta, Andrés. 1899. *Aita Gaspar Astete-eren icasbide cristinaucorraren azalduera laburrac*. Durango.
- Mogel, Jose Antonio. 1803. *Confesino ona*. Vitoria-Gasteiz.
- Onaindia, Aita Santi. 1971. *Enbeita 'tar Kepa Gure Urretxindorra*. Buenos Aires: Ekin.
- Rodriguez, Eider. 2021. *Eraikuntzarako materiala*. Zarautz: Susa.
- Sarasola, Ibon. 2008. *Egungo Euskararen Hiztegia*. UPV/EHU. [Interneten eskuragarri: <https://www.ehu.eus/eeh/>, azken bisita: 2022-05-25].
- Sarrionaindia, Joseba. 2015. *Lapur banden etika eta politika*. Iruñea: Pamiela.